



Olatuen energia aurreikusteko teknika garatu du EHUKO EOLO ikerketa-taldeak ▶22-23

Interneten, emakumeek gizonen baino eragin txikiagoa daukatela dio Iker Merchan Mota algortarrak; EHUrako egin du tesia ▶16-17



hiruka

Uribe Kostako astekaria



29. zenbakia

2015eko
Irailaren 10etik
irailaren 16ra arte



Europako txapela jantzi du Goiherrik

▶16-17

© EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

HERRIZ HERRI SOPELA

Baserri-giroan murgil zaitez, Sopelan!

Nekazaritza eta artisautzako azokakaz, Euskal Jaia ospatuko dute zapatu eta domekan. Beste hamaika ekitaldi antolatu dituzte. ▶7



Udak legez, jaiek aurrera jarraitzen dute

Uribe Kostako jai-maratoi luzeak beste lau etapa izango ditu aste honetan. Horri esker, eskualdeko festazaleek gogoko giroa topatu ahal izango dute Erandioko Enekuri gainean, Leioako Udondo zein Ondiz auzoetan, eta Urdulizko Elortza auzoan. Adin eta interes denentzako hamaika aukera entretenigarri antolatu dituzte jai-batzordeek. Beraz, oraingo honetan ere, parrandan ateratzeko aitzakiarik ez da falta gurean. ▶5/6/8

Berangoko historia errepasatuz

▶8



Mikel Otxotorena soziologoak gizontasun ereduen inguruan hausnartzeko tailerra gidatuko du Algortan. ▶4

Erandioko Emakumeen Elkarteak hamaika ikastaro antolatu du emakumeentzat zein gizonentzat. ▶5

Kukutza gaztetxea eraitsi zuten egunean atxilotutako 19 lagunak epaituko dituzte hilaren 14an eta 16an. ▶9

Marina Alcalde Sainz tango-dantzari urduliztarra onenen artean lotu da Munduko Pista Tangoaren Txapelketan. ▶15

Getxo

Itxartu Eguna, hilaren 12an



Jarduera gehienak Algortako Batzokiko patioan izango dira. © ITZARTU

Itxartu taldeak egun

osoko egitaraua prestatu du irailaren 12rako: bazkaria, herri-kirolak eta erromeria, besteak beste.

Algortako Itxartu taldeak egun osoko egitaraua prestatu du hilaren 12rako, zapatua. Ohi den legez, ekimenak Algortako Batzokiaren ondoko patioan egingo dituzte.

Egitaraua eguerdiko 12:00etan hasiko da; ordu horretan kalejira abiatuko dute Algortako kaleetan barrena. Triki-poteoan ere ibiliko dira tabernaz taberna giroa alaitzeko. Etxarriak busti ondoren, Batzokira bueltatuko dira 14:30ean tripiak asetzeko asmoz. Izan ere, ordu horretan bazkaria egingo dute; menu bereziak egongo dira nagusientzat eta 15 urtetik behe-

rako neska-mutilentzat. Lehenengo bazkariaren prezioa 15 eurokoa izango da; umeena, oster, 8 euro ordaindu beharko dute.

Bazkariaren amaitzean, giroa alaitzeko bazkalostea egingo dute 16:00etan. Bertan, abestiak-eta banatuko dituzte bertaratuko direnen artean. Ordu eta erdi beranduago, herri-kirolak hasiko dituzte; hurreratuko direnek parte hartuko dute proba horietan. Azkenik, egitarauari amaiera emateko, 19:30etik aurrera sardina-dastaketa eta erromeria egongo dira. ◀

Egitaraua

Irailak 12, zapatua

12:00 Kalejira eta triki-poteoa.

14:30 Bazkaria, eta ondoren, bazkalondoa.

17:30 Herri-kirolak.

19:30 Sardina-dastaketa eta erromeria.

Euskal herritarren senidetzea, martxan

Euskal Herria Egunaren zortzigarren edizioa egingo dute hilaren 12an, zapatuagaz. Egun guztiko egitaraua prestatu dute horretarako, ume, gazte eta nagusientzako jardueraz beteta. Hala, bazkaria egingo dute 12 euroren truke; era berean, gaua pasatzeko gunea egokituko dute, kanpin-dendagaz zein furgonetagaz asteak Arabako herri horretan igaro ahal izateko.

Euskal Herria Eguna orain dela zazpi urte antolatzen hasi ziren. Lehenengo edizioan, Gipuzkoako Ibarra eta Nafarroako Lizarra herriak seni-

detu egin ziren, eta ondoren, Algortako batu zitzaizen, «indar handiz» gainera, antolatzaileek aitortzen dutenez. Zazpi urte igaro dira lehenengo senidetze-jaia ospatu zutenetik, eta, dena, zazpi herri osatzen dute, daborduko, sare hori: Algorta, Agurain, Baigorri, Ibarra, Itsasu, Lizarra eta Maulek. Azaldu dutenez, senidetze horrek euskal herritar guztion topagune izan gura duenez, aurten pauso bat harago joan, eta euskal herritar guztiei Euskal Herria Egunean parte hartzeko gonbitea egin diete. ◀

harremanetarako: ehguna@hotmail.com



Mundu osoko itsas hondoak erakusten dituen argazki-erakusketaz goza daiteke Areetako eta Portugaleteko Bizkaia Zubiaren ondoko moiletan. Erakusketa abendura arte egongo da zabalik, eta ozeanoen biodibertsitatearen babesaz kontzientziatzea da 60 irudi horien helburua.

2015-2016 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK-MATRICULA ABIERTA

Maila guztiak - Todos los niveles
Goizez eta arratsaldean - Mañana y tarde

Azterketa ofizialak prestatzeko
ikastaroak larunbatetan

Algortako etorbidea, 104
48991 - Algorta (Getxo)
94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net

MATRIKULA:
Irailaren 2tik 25era
Del 2 al 25 de Septiembre

BULEGO ORDUTEGIA:
10:00 - 13:00
17:00 - 20:00

PARA ALUMNOS DE ENTRE 6-16 AÑOS/6-16 URTEKO IKASLEENTZAT

3 HORAS SEMANALES/ASTEAN 3 ORDU: Lunes y miércoles o martes y jueves / astelehen eta asteazken edo astearte eta ostegun (17:30 -19:00)

MATRIKULA: 260 €

Refuerzo de la asignatura, aprendizaje lúdico, tiempo para preparar exámenes y hacer los deberes. Ikasgaia sendotzeko, ikasketa jostagarria, etxerako lanak egiteko eta azterketak prestatzeko

Matriculas y más información:
J.A. Agirre Euskaltegia
Algortako Etorbidea, 104 tlf: 94 460 66 71

Getxo

Osasuna hobetu guran

Auzotarren artean

ongizatea hobetzeko hainbat jarduera antolatu dituzte; denak, domeka goizetan.

Osasuna erabateko ongizate-egoera da: fisikoa, soziala eta psikologikoa; ez bakarrik gaitzik edo gaixotasun bako egoera, Osasun Mundu Erakundearen arabera. Modu berean, osasun fisikoa zein mentala testuinguru sozialaren eta ekonomikoaren arabera ere bada. Hala, bizi garen inguruen baldintzen arabera ongizateari dago lotuta gizarte-osasuna. Hori horrela, GetxONbizi proiektua martxan ipini dute, osasun eremu hori hobetzeko asmoz. Antolatzaileek azaldu dutenez, «ezagutza partekatu, norberaren autoestimua landu, osasun emoziona-



Jarduera guztiak domeketan izango dira, 10:00etatik 14:00etara.

lean arreta jarri, laguntza-sareak sortu eta sendotu, eta herritarren artean kalitatezko harreman sozialak sustatu nahi ditu» aipatutako egitasmoak. Horretarako, hainbat jarduera antolatu dituzte, elkartzeko eta ikasteko espazioak sortu eta udalerrian osasuna ak-

tibatzeko, berbarako: elikadura osasungarria eta oinez egiteko ibilbideak. Jarduera denak domeketan izango dira, 10:00etatik 14:00etara, eta parte hartu ahal izateko izena eman daiteke daborduko. ◀

info+: www.getxo.eus / 658 755 194

Asilo politika malguagoak ezartzea eskatu du Udalak

Geran murgilduta dauden herrialdeetatik, ihesi, Europara datozen errefuxiatuen harira, Getxoko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak adierazpen instituzionala onartu du, EAJ, PP, PSE-EE eta Ciudadanos-en baiezkoagaz, eta GUK eta EH Bilduren abstentzioakaz.

Adierazpenaren arabera, Udalak 2015eko apirilaren 28an aho batez onetsitakoa berretsi du. Hala, giza eskubideak defendatzeko daukan «konpromiso humanitarioa» berretsi du. Era berean, nazioarteko ahalegina eta lankidetzaren areagotzea «nahitaezkoa» dela nabarmendu du. Halaber, migrazio eta asilo politika malguagoak ezartzeko eskatzen dio Europar Batasunari, «gatazka edo pobrezia egoeran dauden herrialdeetako pertsonen Europara heltzeko aukera izan dezaten, bizia arriskatu gabe». Horregaz guztiagaz batera, Eusko Jurlaritzak azaldutako egoeratik datozen errefuxiatuak hartzeko sortzen duen lantaldean, EAEko gainerako erakundeakaz harremanean eta koordinazioan, udalentzat sortzen den programan «parte hartzeko borondatea» daukala adierazi du. Migrazioaren alorrean tokiko mailan egiten duen lana aztertuko du Udalak, gai honetan espezializatuta dauden elkarte eta erakundeekin elkarlanean.

«Konpromiso sendorik gabekoa»


EH Bilduren arabera, «asmo hutsetan gelditzen den adierazpena baino ez da, ez baitu konpromiso sendorik jasotzen». Apirilean onartutako adierazpena onartzen dute, baina horrek akordiotik harago joan beharko lukeela uste dute. Halaber, ez dute ulertzen Babes Hiri sarera ez atxikitzeke eta Eusko Jurlaritzak bultzatuko duen taldean parte hartze soilaren erabakia. Euren arabera, talde horretan parte hartzea eta Babes Hirien sarean sartzeko «bateragarriak» diren ekintzak dira, «hala ere, ez nahikoak». Era berean, ez dute bat egiten beste erakundeak laguntza eske etorri arte itxaroteko jarreragaz.

GUKek salatu duenez, onartutako adierazpena «azalekoa» da eta ez du larrialdi humanitario hori islatzen. Euren iritziz, gai horretan espezializatuta dauden elkarteak kontutan hartuta, «guztiok beharrezkoak ikusten ditugun beharrak asetzeko ahaleginak arindu daitezke». ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA CURSO 2015-16 IKASTURTEA

MAILA GUZTIAK: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 (4. maila) · TRINKOAK (intensivos)
BETIKO TALDEAK (todos los días) · AUTOIKASKUNTZA (autoaprendizaje)
EUSKARAZKO TAILERRAK (2-3 días a la semana) · JARDUN BIKOAK
(módulos mixtos. 1-2 días a la semana y tutorías) · MINTZA-TALDEAK (B2-C1)

AURREMATRIKULA / PREMATRÍCULA
IRAILAK 1-25 SEPTIEMBRE



**EUSKARAK BATZEN GAITU
EL EUSKERA NOS UNE**




LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)
fonoak: 94 464 62 99 / 94 464 60 25
e-mail: euskaltegi@getxo.net

Getxo

«Kontzientzia eta enpatia behar dira»

Mikel Otxotorena soziologo eta On-Giz Elkarteko kideak tailerra gidatuko du gaur egungo gizontasun-ereduaren inguruan hausnartzeko, Algortan.



Tailerrean izena emateko epea irailaren 14tik 21era arte izango da. MIKEL OTXOTORENA

IKER RINCON MORENO ►

Maskulinitatearen identitateen gainean gogoeta egiteko aukera eman gura die Getxoko gizonei Mikel Otxotorena soziologoak. Tailerrak Algortako Emakumeen Jabekuntza Eskolan izango dira, hilaren 28tik aurrera.

Zein da gaur egungo gizartearen gizontasunaren eredua?

Gizona izatearen eredu jakin bat ikasten edo irakasten digute gizarte-faktore eta -eragile guztiek: familiek, es-

kolek, kulturak eta erlijioak. Hau da, gizontasun hegemoniko baten ezauzgarriez baliatzen gara; horiek barnebiltzen ditugu, eta praktikan jartzen ditugu. Azken finean, botere-harremetan oinarrituta dago, non gizonok botere-harremetan horietan nolabaiteko pisua eta boterea daukagun, gizon hutsa izateagatik. Eta kontrajarrian, emakumeak eta gizontasun jakin hori betetzen ez duten gizon guztiak sartuko genituzke.

Eredu bat baino gehiago dago?

Bai, ñabardura asko egon daitezke,

eta baldin eta zein gizartetan kokatzen garen, ezberdintasunak egon daitezke. Komunean duguna da gizontasun-eredu jakin bat dagoela, modelo bezala, eta gero testuinguru sozial, politiko eta erlijioso horiek zertzeladak ematen dizkiote.

Zelan sortzen dira eredu horiek?

Aspalditik dauden ereduak dira. Hala ere, gizarteak aurrera egiten duen heinean, nolabait eraldatzen doaz egoera berri horietara. Baina, azken finean, ikuspegi soziologiko batetik ikusten dugu azkenean gizon eredu hori beti

dagoela zuzenduta *estatus quo* bat mantentzera; hau da, nolabaiteko botere-harremetan horiek mantentzera, non beti beharko duen menpeko nolabaiteko gizontasun hori mantentzeko.

Zer-zelako ondorioak ekartzen dituzte gizon zein emakumeentzat?

Gizarteak badauka nolabaiteko kontzientzia-maila bat, eta desberdintasunak ikusten ditu gizartearen maila guztietan. Zorritzarez, ez dago salbuespenik, berdin du politika-mailara bagoaz, edo bestelako mailaren batera. Udan, gainera, nahiko presente izan ditugu: jazo diren eraso sexista guztiak, eta oraindik ere gertatzen diren emakumeen hilketak. Horiek guztiak dira ondorioak; edozein esparrutan nabari daitezke.

Zelan eralda daitezke ereduok?

Adibide nahiko garbia dugu udan gertatutakoa: kontzientzia. Eraso sexisten aurrean, gizarteak jarrera bat hartzen hasi da; mugimendu feministari esker, besteak beste. Nik uste dut horretara jo beharko duela bideak. Halaber, enpatia beharrezkoa da, gizonei zuzenduta batez ere. Gizonok ikasi eta jakin behar dugu bestearen tokian jartzen. Azkenean, enpatiaren gaiak eta kontzientziak balio digu, epe ertain-luze batera, modu oso konstante batean lan eginez, pixkanaka egoerari buelta emateko.

Irailaren 28an gizonezkoei begirako tailerra abiatuko duzu Algortan. Zer landuko duzue?

Urtero egiten den ikastaro bat da, ikusten dugulako beharrezkoa dela momentu oro lanean jarraitu behar dela berdintasunaren alde lan egiten. Era beran, modu paralelo batean, gizonekin nolabaiteko hausnarketak eta gogoetak bultzatu behar dira gai bultzuetan, esaterako aitatasuna, indarkeria, homofobia eta misoginia. Gai desberdinak jorratuko ditugu, talde dinamikien bitartez. ◀

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS
Nº 83100014

SGS
Nº 83100015

ISO 9001

• **Soropila Ezartzea**
Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioak onarazte lanak eta enkle lanak.

• **Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, onaraztea, eguraztea, aratzea eta deslikatzea, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

• **Inausketak**
Hazteko, mantentzeko, berriketako, zuhaitza opingariak inauszea, esabateko inausketak.

• **Barrikaldeen lorategi bihurtzea**

Axpe (baiterza 28A, behelko solairua B12 lokala) [ERANDIC] Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net - www.luberrri.biz

Astaldi eta suspertze **IKASTAROAK** urtxintxa eskola

soziokulturalerako

2015
2016

- ASTALDIKO BEGIRALEA (Getxon!)
- ASTALDIKO ZUZENDARIA
- JENDARTE KULTUR DINAMIZATZAILEA
- HEZKIDETZAN ADITUA
- HAURREN PARTE-HARTZEAN MURGILTZEN
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ASTALDIAN
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ETA SEXUALITATEA
- KULTURARTEKO HEZKUNTZAREN HASTAPENAK

➤ **Ikastaro laburrak**

Matrikulazioa
Irailaren 1etik 30era

Zabalbide 26, 48006 BILBO T: 94 432 04 45 www.urtxintxaeuskola.eus

Erandio

Denentzako ikastaroak aukeran

Erandioko Emakumeen Elkartek hamaika ikastaro antolatu ditu emakume zein gizonentzat.

Jarduera soziokulturalak ardatz hartuta, Erandioko Emakumeen Elkartek ikastaro sorta zabala prestatu du datorren ikasturterako, urriaren 1etik aurrera. Kirol jarduerak gustukoak dituenak hainbat aukera izango du: pilatesa, aeroboxa (aerobic eta kickboxing arteko nahasketa), zumba eta mantenimenduko gimnasia, barbarako. Dantza eta musika interesa dituenak ere topa dezake egin: abesbatza, sevillanak (hasierako ikastaroa zein hobetzekoa) eta areto-dantzak, besteak beste.

Horiez gainera, tailerren eskaintza zabala dago: eskulanak, margoa, grafologia, etxeko lanak, irakurketa adie-



Denetarikoa ikastaroak prestatu dituzte. © ERANDIOKO EMAKUMEEN ELKARTEA

razkorra, *papercut*-a eta jantzigintza. Emakumezkoek zein gizonezkoek parte hartu ahal izango dute ikastaroe-tan, beti ere aurretik matrikula eginez gero. Irailaren 14tik 30era izango da horretarako epea, astelehenetik egue-nera, 18:00ak eta 20:00ak bitarteko or-

dutegian. Erandioko Emakumeen Elkarteko bulegoa izango da inskripzioa betetzeko lekua: San Agustin plazako 1. zenbakian. Eskaintzaren eraginez, pilates eta zumba izango dira talde gehien mugituko duten ikastaroak. ◀

info +: mujereserandio@hotmail.com

Pilatesa: astelehen eta eguaztenetan, 10:00, 17:00, 18:00, 19:00 eta 20:00etan.

Eskulanak: astelehenetan, 16:00etan.

Aeroboxa: astelehen eta eguenetan, 19:00etan.

Abesbatza: astelehen eta eguaztenetan, 19:00etan.

Margoa: astelehen eta martitzenetan, 19:45ean.

Mantenimenduko gimnasia: martitzen eta eguenetan, 10:00 eta 16:00etan.

Grafologia: martitzenetan, 10:00etan, eta eguenetan, 18:15ean.

Lanak: martitzenetan, 16:00 eta 18:00etan.

Irakurketa adierazkorra: martitzenetan, 17:00etan.

Zumba: martitzen eta eguenetan, 18:15, 19:15 eta 20:30ean.

Papercut-a: eguaztenean, 10:30ean eta eguenetan, 16:00etan.

Jantzigintza: eguazten eta eguenetan, 18:00etan.

Sevillana hasiera: eguaztenean, 17:00etan.

Sevillana hobekuntza: eguaztenean, 18:30 eta 20:00etan.

Areto-dantzak: barikuetan, 20:15ean.

Izen-ematea zabalik, udal euskaltegian

Erandion euskara ikasi gura duenak hilaren 18ra arte egin dezake inskripzioa. Udal Euskaltegiak data horretara arte izango du zabalik matrikula-epea. «Euskarak batzen gaitu» goiburupean, mota denetako ikastaroak eskainiko ditu euskaltegiak, ohi bezala, Altagako zein Astrabuduko zentroetan.

Besteak beste, honako hau da udal erakundeak duen eskaintza: euskalduntze eta alfabetatzea; titulu ofizialak, tartean hizkuntza eskakizunak eta HABE 1, 2 eta 3; Boga, Internet bidezko irakaskuntza; eta helburu bere-

ziko taldeentzat egokitutako eskolak, barbarako: merkatari eta ostalari-entzat, gurasoentzat eta ikasleentzat.

Ikastaro horien prezioa 150,80 eta 401,35 euro bitartekoa da, ikasturte osoan interesatuak aukeratuko duen ordu kopuruaren arabera. Ikastaro laburrenak 130 ordu ditu, eta zabalena, osterara, 346. Kasu denetan, kostea orduko 1,16 eurokoa izango da ikaslearentzat. Ikastaroak HABE babestuko ditu, eta aukera dago udal laguntzaz matrikularen %100 ordaintzeko. ◀

info+: Erandiokoeuskarazerbitzua.com
erandio.eusk@euskalnet.net / 944 676 075

Hilaren 15ean kurtsoa hasiko du Berbotsek

Erandion Euskaraz Berbots! udalerriko euskara-taldeak batzar orokorra egingo du irailaren 15ean, martitzena. Ikasturte berrirako ekimenak antolatzea da oporren eta Altagako jaien osteko lehenengo bilera horren helburua. Euskaltzaleek hainbat ekimen antolatzen dute urte osoan, esaterako: Kanpomartxo festa, Berbalagun programa, berbatxangoak, Euskarak 365 egun izenekoa, Altagako jaiak, Gabonetako Bertso-jira eta abar. Bileran elkartearen egoitzan egingo dute, 19:00etan, eta bertara hurbil daitezke Berbotseko kideak zein Erandio euskaldunago izan dadin behar egiteko prest dagoen oro. ◀

info+: Berbots.eus

Barikuan hasiko dira Enekuriko jaiak

Dozena luze izaten dira, Erandion, dauoz auzo ospatzen diren jaiak. Abuztu akabuan, San Agustin jaiak izan ziren Altagan, herriko jai nagusiak. Hala ere, geratzen direnak xumeagoak izan arren, meriturik ezin zaie kendu. Gauzak horrela, barikuan hasi eta domekara arte, Enekuri auzo erandioztarrean (batzuek Bilbo dela esan arren) izango dira jaiak. Ohi legez, txupinak abiatuko ditu festak barikuan, 18:30ean. Ondoren, neska-mutilek jolasak eta pottokak izango dituzte. Herri-parrillada eta Xaiboren disko-festagaz amaituko da zapa-tuko jai-eguna. ◀



TEORIA PRESENTZIALA BI ASTEBURUTAN!!

Diploma ofiziala (E.H.n guztiz baliozkoa)

URRIAK 16-17-18 ETA 23-24-25 CORNEJOKO ATERPETXEAN MANTENU OSOAN Antolatzailea

pinpoil

INFORMAZIO eta MATRIKULAK:

noemi@pinpoil.com

tel. 659 659 902

ASTIALDIKO BEGIRALE IKASTARO OFIZIALA

PREZIOA 435€

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: billbao@limpiezasvillar.com

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Leioa

Udondoko jaiak, eguenetik zapatura

Eguenean, hilak 10, abiatuko dituzte Udondoko festak, Tolentinoko San Nikolasen omenezkoak. Zapatura arte izango dira jaiak, zelanbait Ondiz ondoko auzoagaz bat ez egitearren. Urtero legez, adin denentzako festak prestatu ditu Udondoko jai-batzordeak. Halere, eguenean, batez ere nagusiei begirako jarduerak izango dira aukeran.

Ekitaldiei dagokienez, badago zertaz gozatu: egueneko txupina, edo txikiteroen abestaldia; barikuan, Gure Ohiturak taldeak egingo duen dantzaldia, eta zapatuko ekimen andana. Azken egun horretan, ondo pasatzeko hamaika jarduera izango dira: antzinako auto eta motorren erakusketa, bertso-saioa, mus-txapelketa, umeen jolasak eta abar. Ohi den legez, Udondoko gaztetxeak ere bere ekarpena egingo die jaiiei, barikuan eta zapatuan. ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 10, eguna

11:00 Txupina, eta txistularien kalejira.

13:00 Ohorezko aurrekua, eta ikurrinaren igoera, auzoko nagusien eskutik. Ondoren, Udondoko nagusientzako luncha.

19:30 Udondoko Txikiteroen musika-poteoa.

Irailak 11, barikua

19:00 Gure Ohiturak dantza-taldearen emanaldia.

20:30 Los Txikis taldearen emanaldia, eta moztorro gaua, ostean.

20:30 Lokalfest kontzertua, gaztetxean.

Irailak 12, zapatua

13:00 Bertso-saioa.

14:30 Paella Txapelketa.

17:00 Mus Txapelketa.

19:00 Urrezko Aizkolari Txapelkun Liga, eta Inaxio Perurena harri-jasotzailea.

20:00 Erromeria.



Mendibile parkea jolasteko erabiltzen dute ume askok.

Umeek kulunka berriak izango dituzte hil akabuan Mendibilen

Mendibileko jolas-parkea berrituta Megongo da iraila amaitu aurretik, Leioako Udalak baieztatu duenez. Jolas-parkea «zahartuta zegoela ikusirik», Udalak erabaki zuen jolasak berritzea, eta «bertaratzen diren txikiei aukera berriak ematea». Orain dauden kulunken eta zabuen orde, elementu berriak ipiniko dituzte, gaur egun hegazkina dagoen lekuan. 2 eta 12 urte

bitarteko umeentzako jolas berriak honakoak izango dira: kulunka bikoitza, txirrista biko elementua (bata, sarbide biko tutu formakoa, eta bestea, kiribil itxurakoa), gai interaktiboak, bost sarbideko eta hiru altuerako plataformak, eta perretxiko birakaria.

Denera, 65.000 bat euroko inbertsioa izango da. Aurten, beste parke batzuk ere zaharberrituko dituzte. ◀

Euskara ikasteko laguntza motak zabaltu ditu Udalak

Udalerriko euskaltegietan euskara ikasteko laguntzei nobedade bi gehitu dizkie Leioako Udalak. Laguntzak orokortzea izan da lehenengo berritasuna, orain arte babestutako populazio-eremuetatik harago: euskaltegietan izena emango duen ia edozeinek eskatu ahal izango du matrikularen %25 bueltatzea. Horretarako, nahikoa izango da Leioan sei hilabetez errolatuta egotea, eta ikastaroa amaitu arte eroldan mantentzea. Bigarren nobedadeak ere laguntzak jaso ditzaketen denei ekarriko dizkie onurak. Izan ere, matrikularen %15 aurreztatzea eskatu ahal izango dute, izena emateagaz batera. Era berean, orain

arte legez, diru-laguntza jaso ahal izango dute helbide soziala udalerrian daukaten elkarreetako kideek, 12 urtetik beherako umeen aita-amek, eta 1992tik 1999ra bitartean jaiotako gazteek. Horiei denei matrikularen %50 ordainduko diete. Familia-unitateko gutxieneko diru-sarrerara heltzen ez direnei, oster, matrikularen %80 emango diete. Halere, euskara ikasteko diru-laguntzak jaso gura dituztenek izango dituzte betebeharrak: Mastitxu udal euskaltegiko edo Lamia AEK euskaltegiko ikasle izatea, eta gutxieneko asistentzia %85ekoa izatea. ◀

info+: 946 072 576
euskarazerbitzua@leioa.net

Ondizko jaiak aurrera doaz, domekara arte

Pasa den irailaren 4an hasi ziren Ondizko festak, ohiko txupinaren jaurtiketaz. Ordutik hona, jai-ekimen zaparrada izan da ondiztarren gozamenerako, barbarako: Bizkaiko 55. Aurreku Txapelketa eta Ondizko VIII. Emakumezkoen Aurreku Txapelketa jokatu zituzten domekan. Gizonezkoetan, txapel biak Leioan geratu ziren, Ander Navarro eta Josu Marcosen buketan. Emakumezkoen atalean, Ibañe eta Iholdi Beristain portugaletarrek irabazi zuten. Baina festak ez dira amaitu, eta domekara arte, hainbat jarduera izango da auzoan: bakailao txapelketa, tartean. ◀



Aldundiak Zainduz programa berritu du

Bizkaiko Foru Aldundiak beste urte batez berrituko du Zainduz programa. Ekimen horren helburua da mendetasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza ematea, eta Leioako Udalagaz horretan elkarlanean dabil Diputazioa. Pasa den abuztuaren 28ko Foru Gobernu Kontseiluan hartu zuten erabakia Aldundiko arduradunek. Horren bidez, laster sinatuko dute hitzarmena Leioako Udalagaz. Era horretan, Bizkaia 12.188,38 euro inbertituko ditu euren etxeetan bizi diren eta mendetasuna duten adinekoen eta haien familien eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko. Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak ere badituzte hitzarmenak Aldundiagaz. ◀

PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN MASTITXU EUSKALTEGIA

Modulo berriak

Aurreentzikula Irailaren 1etik 10ra (Bazkariak sartuta)

Promotrikula Irailaren 11tik 15 de seiembre (Bazkariak sartuta)

Euskara ikasteko Diru-laguntza jasotzeko aukera

Posibilidad de pedir BECAS para el curso de euskara

MASTITXU EUSKALTEGIA
Iaztegiaren etorbidea, 78
48940 - LEIOA
euskaltegi@leioa.net
www.euskaltegi-leioa.com
T 94 464 00 02
Fax 94 464 25 80

facebook.com/euskaltegi

Leioa

TABERNA Unai JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNXUNAI@HOTMAIL.COM

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

Sopela



Nekazaritza-azoka izango da zapatuan, udaletxeko plazan. © SOPELA KO UDALA

Euskal Jaia aste akabuan, zatoz!

Asteburu honetan egingo da ohiko Euskal Jaia Sopelan. Kontzertuak eta azokak izango dira, besteak beste.

Aste akaburako plan biribila daukazu Sopelan: urteroko Euskal Jaia egingo da, zapatuan eta domekan (irailaren 12an eta 13an). Egun bi bakarrik badi-ra ere, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, berbarako: nekazaritzako eta artisautzako azokak.

Baina badago besterik. Zapatu goizean, pala-txapelketaren finala jokatuko da, eta arrastian, Bidaia musika-taldearen kontzertua ikusi eta entzun ahaliko da; Mixel Ducau eta Caroline Phillipsek osatzen dute taldea. Domekan, oster, sukalki-txapelketa eta txirrindularitza-eskolen topaketa egingo dira. Ekitaldi gehienak udaletxeko plazan izango dira. ◀

Irailak 12, zapatua

- 10:00**
Nekazaritza-azoka.
- 12:00**
Pala-txapelketa, finala. Pilotalekuan. 3 euro.
- 12:30**
Euskoareans Dixie Band, emanaldi ibiltaria.
- 13:00**
Azokako txapelketen sari-banaketa.
- 20:00**
Mixel Ducau eta Caroline Phillips. Euria bada, Kurtzio kultur etxean.

Irailak 13, domeka

- 09:00**
Sukalki-txapelketen izena ematea.
- 11:00 - 15:00 / 17:00 - 20:00**
Artisautza-azoka.
- 10:30**
Txirrindularitza-eskolen topaketa. Kurtzio inguruan.
- 12:30**
Euskal dantzak, Eguzkilore taldeagaz.
- 13:00**
Sukalki-txapelketa, kazolak aurkeztea.
- 14:00**
Sukalki-txapelketaren sari-banaketa.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots, oster ere, Sopelan!

Txo, MikMak txikia ikuskizunagaz Sopelara itzuliko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, irailaren 23an. Ekitaldia Sopela Kosta Fest jaialdiaren baitan egingo da. Urko kiroldegian emanaldi bi egingo dituzte: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak laster ipiniko dituzte salmentan, 5 euroan (hurrengo HIRUKAgaz hainbat zozkatuko ditugu, adi ibili!). Sopelan errol-datutakoek irailaren 14tik 18ra eros ditzakete; errol-datuta ez daudenek, berriz, irailaren 21etik 23ra. Sarrerok hemen eskura daitezke: Kurtzio kultur etxean, Sopelaren bulegoan (Larrabastera), www.sopela.eus webgunearen bitartez eta udaletxean.

Ternuatik etorri den indio txikia da Txo MikMak, eta San Juan baleontzian munduari txiri-buelta emango dio, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak lagun dituela. Hala, bidaia horretan, Sopelara hurreratu eta geldialdia egingo dute gurean, Urko kiroldegian. ◀

Kanpoko margo-lehiaketa antolatu dute domekarako

Zirrimarra elkarteak kanpoko margo-lehiaketa antolatu du domeka honetarako, beste behin ere. Sopela izango da aurtengo gaia, eta teknika libre izango da. Horregatik, gurago duten margoa erabiliko dute pintoreek: olio, akuarela, mistoa, pastela, etab. Antolatzaileek iragarri dutenez, herriko zein kanpoko margolariak hurbilduko dira.

Umeek eta nagusiek parte har dezakete. Nagusien zibilua 09:00etatik 11:00etara ipiniko da, eta umeena, 09:00etatik 12:00etara. Antolatzaileek espero dute margolari askok parte hartzea eta «aurreko urteetako arrakasta errepikatzea». ◀



Gramofono ixila

LANDER
UNANUE MENDIGUREN
Abarkatxo

Nahi duzuna ikasteko 20 ordu

Uda joatearekin batera, oraindik guztiz amaitu ez bada ere, kurtso berri bati hasiera emateko prestatu ohi gara.

Batzuk, beste batzuk baino gogotsuago ekiten diote ikasturte berriari eta planifikazio prozesu batean murgiltzen dira, euren ekimen propioak ere tarteka txertatzen dituztelarik: «Aurten... hizkuntza berri bat ikasiko dut» edo «ikastaro honetara apuntatuko naiz» edo «dantza» edo «kirola» edo dena delakoa. Askotan, antzeko prozesu bat ematen da abendu bukaeran, hurrengo urte berriari begira, irailekoak bete ez bagenu bezala.

Esaten dutenez, ikasgai berri baten maila oinarritzkoenera heltzeko 20 ordu behar omen dira, hau da, zerotik hasi eta oinarritzko maila xumeenera heltzeko, 20 orduko praktikako tartea dago. Esaterako, ikasiberritako musika-tresna batekin abesti sinple bat jotzeko, edota hizkuntza berri bat ikasten gaudela, oinarritzko elkarritzaketa bat ulertzeko. Hau guztia, ikasketa prozesu berri guztietan gertatu ohi da.

Ematen du 20 ordu oso denbora tarte txikia dela hasiberri maila horretara heltzeko bada ere. Egia esan, ez dut teoria hau praktikara eraman oraindik, baina probatzea merezi duela iruditzen zait. Agian denbora tarte luzeagoa behar da, edo laburragoa ere izan daiteke azkar ikasten duten horientzat.... baina ikasten dugunarekin gustura gabiltzanean, nork zenbatzen ditu orduak?

Bada, opor bukaerako planifikazioa egunerokotasunera eromaterakoan, gogotsu eta erabat interesaturik hasten dugu bidea, baina erdibidean nagikeriak ere ager daitezke tarteka, benetako oztopo bihurtuz, ikasketa prozesu osoa geratzeko bestekoak. Gomen-dioa, gutxienez 20 ordu horiek betetzea litzateke... hobe esanda, har itzazu 20 ordu, zuk nahi duzun hori egiteko. 20 ordu zuretzat. ◀



Hautzaindegitik batxilergora
arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus

www.anderdeunaikastola.eus



DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Barrika



Barrikabasoko promotorea, indemnizazio barik

Barrikabasoko gune babestuan da-borduko eraikita dauden hamalau luxuzko txaletak legez kanpokotzat jo zituen Espainiako Auzitegi Gorenak; gainera, uztaile amaieran, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 3. Epaitegiak jakinarazi zuen proiektu horren promotoreak ez duela «inolako indemnizaziorik» jasoko administrazioaren partetik, EH Bilduk jakinarazi duenez. Izan ere, promotoreak berak hasi zuen lur horien birkalifikatzeko prozesua. Hortaz, EH Bilduren iritziz, «ezin du esan engainatu» zutenik, ezta «segurtasun osoa» eman ziotenik ere. ◀

Urduliz

Andra Mari jaietako bigarren aste akabua hartuko du Elortzak

Pasa den barikuan Elexalden abiatu ziren jaiak domeka honetan amaituko dira, Elortza auzoan. Halerere, bitartean urduliztarrek izango dute zertaz gozatu, barikutik aurrera. Litekeena da kontzertuek erakartzea jende gehienaren arreta. Barikuan, 23:00etatik aurrera, EH Sukarra talde mitikoak joko du, Tight Leash eta La Mordidagaz batera. Zapatuan, oster, erromeria izango da, Garilak 26 taldeagaz. Hala ere, gastronomia, kirol eta umeen jarduerak ere izango dira. ◀



Berango

«Aurretik zer gertatu zen jakin-mina dut»

Alberto Diez historiazalea 1933an Gorlizen jaio bazen ere, gero, Berangora ezkondu zen. Analista mikrobiologikoa da, baina historia ikertzea du pasio; erretiratu zenetik 12 liburu argitaratu ditu: lehenengoa, 1990an.

IKER RINCON MORENO ▶

Gizakiak 40.000 urte daroatza Berangon finkatuta. Hortik abiatuta, Alberto Diezek udalerriko historiaren bilakaeraren nondik norako garrantzitsuenak batu zituen orain dela 25 urte argitaratutako liburuan; orain 100 orriko eranskin berriagaz berrargitaratu du lana.

Zer aurkituko du irakurleak *Berango, 40.000 años de historia* liburuan?

Denetarik kontatzen dut: herriko baserrien historia; auzotarren bizitza; dorretxeak, errotak; auzokideen gorabehera militarrek, zerumugan etsaien belak ikusten zituztenean; Simon Otxandategiren bizitza, eta hark utzitako dirua, besteak beste.

Liburu hori 1990an plazaratu zenuen lehenengo aldiz; oraintsu berrargitaratu, zer dela eta?

Dirudienez, Berangoko Udalak lehenengo edizioaren berrargitalpen soil bat gura zuen; liburuak agortu egin ziren, eta gehiago nahi zituen folk jaialdiko parte-hartzaileei emateko. Hala ere, ez zen erraza izan berrargitalpena egitea. Fotolitoakaz egin genuen duela 25 urte, eta dena digitalki egiten da orain; programa ezberdinak erabilita, gauza ugari aldatu ziren. Javier Ramos Zabalaen laguntza izan nuen horretarako, Zabala lan egiten zuen-eta lehenengo edizioa inprimatu zeneko inprentan. Berrargitalpenagaz, historiaurreari lotutako hainbat aurki-



10 urteko ikerketen ostean erabaki zuen Berangori lotutako liburua egitea.

kuntzaren berri emateko aukera ikusi nuen, eta 100 orriko eranskin bat egin nuen, penagarria litzatekeelako horren berri ez ematea; eta beste hainbat kontu ere gehitu nituen.

Zein kontu berri dira horiek?

Historiaurreko gauzak, batez ere; 250.000 urte egin dut atzera eranskin horretan, Agirremendiko tontorrean aurkitutako Auriñaciense garaiko aztarnategiari esker, besteak beste. Era berean, udalerriko beste hainbat kontu azaltzen ditut, esaterako 1935eko lurren erabilera, Berangoko mapa geologikoa, 1814ko uztak, 1825eko auzokide denen errolda, Otxandategik fundatutako Patronatuaren dokumentu bat,

eta 1919, 1972, 1998 eta 2005eko udalerriko argazki panoramikoak.

Zure ikerketei esker, Berangoko armarrria aldatu zuten orain dela 25 urte...

Bai. Udalak bere armarrria izan gura zuen, eta horretarako Juan Carlos Guerra heraldista famatuari galdetu zioten ea zein zen, baina hark ez zuen inon aurkitu. Hala, Icazak, auzokide dirudun eta boteretsu batek, bere armarrria erabiltzeko proposatu zuen 1926an. Erandioko jatorria zuen familia hark; hori dela eta, nik Otxandategiko dorretxean dagoen armarrria proposatu nuen, haien eta Butroitarren arteko ezkontzaren ondorio izan zen-eta. Gaur egun armarrri hori dugu. ◀

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDATTEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu

**%50eko
deskontua**
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)



IKASGIRO

ETXEKO IRAKASLEA-EL PROFESOR EN CASA

En tu casa cuando quieras. Zure etxean nahi duzunean.

Primaria y secundaria. Lehen eta bigarren hezkuntza.

ikasgiro . blogspot . com . es

e-Posta / correo: ikasgiro@gmail.com Tel.: 697641508

TABERNA
Ekin
JATETXEA

CALLE BOLUE Nº4

TEL: 946080462

Plentzia

Langabeen errolda eguneratzen dabiltza

Krisi ekonomikoak aurrera jarraitzen du; ez da etenik sumatzen, gainera. Herriko hainbat auzokidek oraindino ez dute lanik inondik ere aurkitu. Arazo gordin horren aurrean, udalerriko lanbakoien errolda eguneratu gura du Plentziako Udalak. Horretarako, lanik ez dutenek zerrenda horretan eman beharko dute izena, eta horrela gaurkotuko dute herrian beharrik ez duten pertsonen egoera.

Izena emateko epea joan den irailaren 1ean zabaldu zuten, eta arduradunek jakinarazi dutenez, ez dute

epea zarratuko. Lehenengo fasean, izena emateko orriagaz batera, lanbakoek curriculum vitae aurkeztu beharko dute bakarrik. Aurrerago eskatuko dizkiete aurkeztu dituzten agerietan jasotzen diren datuen gainerako egiaztagirak.

Eskaera-orriak eskura egongo dira udaletxeko beheko solairuan dagoen Herriarren Arreta Zerbitzuan, Plentziako Udaleko webgunean eta Kale Barria 2. zenbakian dagoen Goñi Portalean. ◀

info+: www.plentzia.org

Juan Zabalok Hego Amerikan egindako bidaiatz jardungo du

Motorraren gainean mundua eza-gutzea da Juan Zabalo getxoztarraren pasioa. 2011n Asia osoa gurutzatu zuen 47 egunean, bere motorragaz 27.000 kilometro eginez. Esperientzia hori ez zitzaion nahikoa izan, eta aurtengo Hego Amerika osoa gurutzatu du, motorrez ere bai. Hego Amerikan, ia 3 hilabete inguru behar izan ditu. Bidaia horretan, Zabalo azaltzen duenez, «mota guztietako egoerei» egin behar izan die aurre, berbarako uriolak basamortuan, eta lurrikara bat.

Horren guztia berri emateko, getxoztarrak argazki ugari atera ditu, eta ikusgai daude Plentziako Goñi Portalean hilaren 13ra arte. Halaber,



© JUAN ZABALO

irailaren 12an, zapatuan, Juan Zabalo abenturako protagonistak zeharkaldi horren bizipen guztiak kontatuko ditu, arrastiko 18:00etan, Goñi Portalean bertan. ◀

info+: www.plentzia.org
1xamericaenmoto.blogspot.com.es

Uribe Kosta



Ertzaintza gogor oldartu zen manifestarien kontra, Kukutza hustu eta hurrengo egunetan.

Kukutzaren kontrako hurrengo epaiketa

Gaztetxea eraitsi zuten egunean atxilotutako 19 lagunak epaituko dituzte hilaren 14an eta 16an.

Oraindino ez dira amaitu Bilboko Kukutza III gaztetxe-ko hustea eta eraistea jasan zituzten lagunak kontrako epaiketak. Urte hasieran, desalojoaren orduan, eraikin autogestionatu horren barruan zeuden 23 gazteak epaitu zituzten; epaileak ebatzitako absoluzioa errekurritu du fiskaltzak. Orain, erai-penaren egunean atxilotutako 19 gazteak epaituko dituzte, hilaren 14an eta 16an, eta horien artean Xabier Otxoa itzubaltzetarra eta Gorka Tetua urdu-

litzarra daude. Tetuak 2 urte eta 6 hilabeteko espetxe zigor eskaera dauka, Otxoak (eta beste lagun batek) 2 urte eta bi hilabetekoa, eta gainontzeko hamaseiek hamazortzina hilabetekoa. Fiskaltzak desordena publikoa eta erresistentzia egozten dizkie 2011ko irailaren 23an atxilotutako 19 auzipetu horiei.

Elkartasunerako ekimenak

Epaiketaren egunetan (irailak 14 eta 16) elkarretaratzeak egingo dituzte Bilboko epaitegiaren sarreran, 09:15ean. Halaber, irailaren 12an, zapatuan, manifestazioa egingo dute Bilboko Jesusen Bihotzetik abiatuta, 18:00etan. Bertan egongo dira Zea Mays eta Akerjenbe Sound Sistem. ◀

Renault ESPACE
berria

Zure denbora zurea da

Gidatzéan, gozatu arintasunaz eta segurtasunaz lau gorpil gidariko 4Control[®] sistemarekin.

Renault Espace berria gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,4tik 6,2ra bitartean. CO₂-aren isuria (g/km), 116tik 140ra bitartean.


Renault garatzen duen **elf**

RENAULT
Passion for life

renault.es

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri



URIBE KOSTAKO UDA ARGAZKI-LEHIAKETA

Martxan da **herri-bozketa**: irailaren 29ra arte gustukoen dituzun 3 argazki aukera ditzakezu.

Botoa emateko ordua da!

Aukeratu zure argazkirik gogokoenak www.hiruka.eusen!

1.000

euroko balioa
duen **egonaldia**
zein argazkik
irabaziko ete du?



Irudi hauek Uribe Kostako argazki-lehiaketan
parte hartu duten argazki guztietatik
aukeratutako batzuk baino ez dira.

DEN-DENAK IKUSTEKO ETA ZURE BOZKA EMATEKO:

www.hiruka.eus

SARIA

Sari bakarra izango da: 1.000 euroko balioa duen bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte, hautatutako data aukeran balego.
Ez da inolaz ere onartuko irabazitako sarien orde, beste sari batzuk edo dirua hartzea.

SARI-BANAKETA

Herri-bozketaz aukeratuko da sariduna: boto gehien jasoko dituen argazkiaren egilea.

Bozketa www.hiruka.eus webgunearen bitartez egingo da, irailaren 1etik 29ra bitartean.

Erabakia ezin izango da eztabaidatu edo gaitzetsi.

Irabazlea nor den urriaren 1ean jakinaraziko dugu, HIRUKA paperezko astekarian eta www.hiruka.eus agerkari digitalean. Epostaz edo telefonoz harremanetan jarriko gara saridunagaz.

HIRUKA Koop. Elk.-k bere egiten du, edozein arrazoi dela medio, zozketa behin betiko aldatzeko, bertan behera uzteko edo eteteko eskubidea, eta ez du inolako erantzukizunik izango horregatik.



Uribekostarrak non, Uribe Kosta han!

Herri-bozketa martxan da: irailaren 29ra arte gustuen dituzun 3 argazki aukera ditzakezu.

hiruka Uribe Kostako astekaria

EROSKI bidaiak

Anetsetan? Egizu legan!



Mediterraneoko erritmoak ekarriko ditu Els Cremats talde kataluniarak. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Egitaraua

Irailak 11, barikua

19:00-22:00 Itsas azoka, Areetako Xake plaza inguruan. Sarrera doan.

19:30 Mendibaiarte abesbatza (Erando, Euskal Herria), Areetako Xake plazan. Daborduko, gonbidapenak har daitezke txarteldegian, 18:00etatik 20:30era.

Irailak 12, zapatua

19:00-22:00 Itsas azoka, Areetako Xake plaza inguruan. Sarrera doan.

19:30 Els Cremats taldea (Girona, Herrialde Katalanak), Areetako Xake plazan. Daborduko, gonbidapenak har daitezke txarteldegian, 18:00etatik 20:30era.

Irailak 13, domeka

19:00-22:00 Itsas azoka, Areetako Xake plaza inguruan. Sarrera doan.

19:30 Coro Manin de Llastres abesbatza (Asturias), Areetako Xake plazan. Daborduko, gonbidapenak har daitezke txarteldegian, 18:00etatik 20:30era.

Itsas kantak, lehorrera!



Getxoko Habanera Jaialdian Mendibaiarte, Els Cremats eta Manin de Llastres taldeek abestuko dute aste akabuan. Sarrera doan da, aldeztu aurretik gonbidapena hartuz gero.

Irailaren 11tik 13ra egingo den Habanera eta Itsas Abestien Jaialdiak emango dio amaiera Getxoko musika-festibalen eskaintzari. Hala, hiru egunean, estilo oso ezberdinetako hiru talderen kontzertuak gozatzeko aukera edukiko dute entzuleek, Areetako Xake plazan.

Erandioko Mendibaiarte abesbatzak emango dio hasiera barikuan jaialdiaren 29. edizioari. 24 ahots baxuk osatzen dute taldea; 2005ean sortu

zen, Mendibaiarte otxotetik abiatuta. Abesti-errepertorio askotarikoa abesteko eta herri-ospakizunetan parte hartzeko asmoz batu ziren kantariak urte hartan, eta, geroztik, hainbat jardueratan parte hartu du koralak, barbarako: Bizkaiko Abesbatzen Egunean, Erandioko Musikaldian, Euskadi Kanta lehiaketan eta bestelako ospakizunetan (adib.: Karmengo amaren eguna, Kanpomartxo, Euskararen Eguna eta abar). Bizkaitik kanpo, besteak beste,

Avilan eta Asturiasen kantatu du Mendibaiarte abesbatzak.

Bigarren egunean, zapatuan, Mediterraneoeko erritmoak hartuko ditu jaialdiak, Els Cremats taldeari esker. Gironako seikoteak askotariko errepertorioa dauka, habanera ardatz hartu-

Aurten ere, itsasoagaz loturiko produktu gastronomikoak eta oroigarriak egongo dira

ta, beste genero batzuk alboratu barik (itsas abestia, taberna-abestia...). Pala-

frugelleko eta Calella de Palafrugelleko jai eta taberna-giroan sortu zen taldea, eta genero horren topikoak apurtu ditu, itsas doinuak beste erritmoak nahasteko duen gaitasunaz baliatuta, barbarako: runbagaz, Kubako sonagaz edo cumbiagaz.

Azkenik, domekan, 31 ahots baxuk osatzen duten Manin de Llastres abesbatza asturiarrak kantatuko du. 1977an sortu zen koral, eta Asturiaseko herri garrantzitsuenetan jardun du harrezkero; nazioartean, Suitzan eta Italian egon dira. Bere errepertorioan genero askotariko piezak batu dituzte, baina habanerak eta kantu asturiarrak dira nagusi. ◀

Sopela Kosta Fest-eko ekitaldietan, izen-ematea

Sopela Kosta Fest jaialdiaren edizioa irailaren 23etik 27ra izango da. Iaz legez, surfa, natura eta musika izango dira festibalaren ardatzak; daborduko osatu dute egitaraua. Hilaren 18ra arte egongo da hegaztien behaketan, bisita gidatuetan, surf ikastaroetan zein parapente-hegaldietan izena emateko aukera. Bestalde, Sopelan errolatuek 14tik 18ra edukiko dituzte eskura Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Txo, MikMak txikia ikuskizunerako sarrerak (5 euro). Azkenik, hilaren 27rako faroltxoak salgai (2 euro) daude Turismo bulegoan. ◀

info+: kultura@sopela.eus

Hainbat ekitaldi

Irailak 23, eguaztena

16:30 / 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Txo, MikMak txikia ikuskizuna, Urko kiroldegian. Sarrera: 5 euro.

Irailak 26, zapatua

13:00-18:00 Parapente-hegaldiak, Barinatxe gainetik.

Irailak 27, domeka

11:00-12:30 Lehen sorospenen gaineko ikastaroa, Arrietara hondartzan.

13:00-18:00 Parapente-hegaldiak.

21:30 Desioak zerura, Barinatxetik, Aimar del Pozo ume gaixoiari laguntzeko. Faroltxoak, 2 euroan; Turismo bulegoan.

Mexikoko dantzak beteko dute Xake plaza

Eguen honetan, irailak 10, ¡Viva Mexico! ekitaldiaz gozatzeko aukera egongo da Areetan, Amerikako herrialde horretatik heldutako dantzari eta mariachi esker. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Xake plazan; daborduko salgai daude sarrerak, 5 euroan, ohiko lekuetan.

Violeta Chamorro Acostak 2002az geroztik zuzentzen du Ballet Mariachi de Mexico talde bikaina, kultura mexikarreko profesionalek osatua. Euren musika eta dantza folkloriko herrikoien zein garaikidearen aniztasuna ezagutzera emateko helburuagaz sortu zen taldea. Besteak beste, Veracruz,



© GETXOKO KULTUR ETXEA

Sonora edo Michoacanezko corridoak eta dantzak egongo dira ikusgai egue-neko ikuskizunean, edertasun eta kultur aberastasun handiko eskuz egingako jantziak aurkeztuta. ◀

Dultzaineroen bilkura egingo dute zapatuan

Ixas Argiak antolatuta, zapatu honetan, irailak 12, Dultzainero Eguna ospatuko dute Algortan eta Getxon. 12:00etan taldeen kalejira egingo dute herri osoan; 13:30ean, berriz, bilkura, Telletxen, eta kalejira, Malakateraino.◀

Motorzaleen topaketa zazpigarren urtez

Four Monkeys taldeak antolatuta, domeka honetan, irailak 13, poteoa, ibilaldia, bazkaria (15 euro), kontzertua eta zozketak egingo dira. Izen-ematea ere ordaindu beharko da (5 euro). ◀

info+: www.fourmonkeysacm.com

Azokatxo, Igeretxe hotelean, hiler

Uda amaitzeaz dela, hilaren 13an abiatuko da berrir *Magic market*, Algortako Igeretxe hotelean, 11:00etatik 21:00etara. Modak, artisautzak eta gastronomiak lekua izango dute bertan, hila bete bakoitzeko bigarren domekan. ◀



Azokaz azoka, aste akabuan

Habanera jaialdian, itsas produktuez gozatzeko aukera egingo da Areetan. Sopelan, oster, nekazaritza eta artisautzako feriak egingo dituzte, Euskal Jaieren barruan. Produktu ekologikoek Algortan eta Astrabuduan izango dute lekua; azkena, Athletic Goiko Taldeak antolatuta. ◀

Areeta: Hilaren 11tik 13ra (11:00-13:00), itsas azoka, Xake plaza.
Algorta: Hilaren 12an (10:00-15:00), Bio Getxo azoka, Telletxe plaza.
Sopela: Hilaren 12an (10:00etatik), nekazaritza-azoka; eta hilaren 13an (11:00etatik), artisautza-azoka. Biak dira udaletxeko plaza.
Astrabudua: Hilaren 13an (11:00-15:00) azoka ekologikoa, Mendiguren plaza.

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2015/09/12 - 09:30

Paella Lehiaketa

Udondo auzoa | Leioa
Udondoko jaien egitarauaren barruan. Paellak 14:30etik 15:00etara aurkeztu beharko dira. Sariak 20:00etan emango dituzte.

2015/09/12 - 11:00

Antzinako kotxe eta motorren erakusketa

Udondo auzoa | Leioa
Udondoko jaien egitarauaren barruan. Ibilaldia egingo dute 12:30ean abiatuta.

2015/09/12 - 11:30

Antzezututako bisita gidatua Bizkaiko Zubira

Bizkaiko Zubia (Areeta) | Getxo
Gaztelaniaz. Ez da beharrezkoa izena ematea; nahikoa da hamar minutu lehenago egiteagaz. 12 urtetik gorakoek 3 euro ordainduko dituzte.

2015/09/12 - 12:00

Sopelako Udaleko Pala Txapelketa

Udal pilotalekua | Sopela
Euskal Jaieren egitarauaren barruan. Finalak jokatuko dira. Sarrera: 3 euro.

2015/09/12 - 12:30

Euskorleans Dixie Band taldearen emanaldi ibiltaria

Udaletxeko plaza | Sopela
Euskal Jaieren egitarauaren barruan. New Orleans doinua duen euskal musika.

2015/09/12 - 14:30

Herri-bazkaria

Iparralde kiroldegia | Urduliz
Andra Mari jaien egitarauaren barruan. Txartelak salgai daude Txiki Barri eta Txiberri tabernetan.

2015/09/12 - 18:00

Olgetan Solas

Enekuri auzoa | Erandio
Enekuriko jaietako egitarauaren barruan. Jai-batzordeak eta Udalararen Euskara Zerbitzuak elkarlanean antolatutako jolasak egingo dituzte, euskaraz. Parte-hartzea, libre.

2015/09/12 - 18:00

1 x America en moto berbaldia

Gofi Portal kultur etxea | Plentzia
Plentzia Classic elkarteak antolatuta. 2015eko urtariletik martxora bitartean, Amerikan barrena egindako ibilbideaz egingo du berba Juan Zabalo getxoztarrak. Gaztelaniaz. Doan. Bidaiaaren argazkiak hilaren 13ra arte egingo dira ikusgai, Gofi Portalen.

topaketa

Kurtzio ingurua | Sopela
Euskal Jaieren egitarauaren barruan.

2015/09/13 - 11:00

Elkartasuneko herri-krosa

Eliz plaza | Gorliz
Egun berean eman daiteke izena 09:30etik 10:30era (15 euro). Dirua gaixotasun neurodegeneratiboak ikertzeko erabiliko da. Informazio gehiago: turismo@gorliz.net

2015/09/13 - 11:30

Antzezututako bisita gidatua Algortako Portu Zaharrera

Algortako Portu Zaharra | Getxo
Gaztelaniaz. Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea; nahikoa da hamar minutu lehenago egiteagaz. 12 urtetik gorakoek 3 euro ordainduko dituzte.

2015/09/13 - 12:30

Euskal dantzak, Eguzkilore taldeagaz

Udaletxeko plaza | Sopela
Euskal Jaieren egitarauaren barruan.

2015/09/13 - bazkalondoan

Tor magoa

Enekuri auzoa | Erandio
Enekuriko jaietako egitarauaren barruan. Herri-bazkaria, 15:00etan. Serapio tabernan edo txosnan eman daiteke izena, aurretik.

2015/09/13 - 18:00

Areto dantzak

Iparralde kiroldegia | Urduliz
Andra Mari jaien egitarauaren barruan. Doan.

2015/09/13 - 18:30

Astokillo Circus kale-antzezlan

Udaletxeko plaza | Sopela
Euskal Jaieren egitarauaren barruan. Panta Rhei taldeak antzertuta. Doan.

2015/09/13 - 19:30

Manin de Llastres abesbatza asturiarraren kontzertua

Xake plaza (Areeta) | Getxo
Habanera eta Itsas Abesti Jaialdiaren barruan. Daborduko, gonbidapenak har daitezke txarteldegian, -18:00etatik 20:30era.

2015/09/14 - 17:30-19:00

Umeentzako Uda Fun jolasak Txintxilandia plaza | Barrika

Dantza eta tailerrak egingo dira. Eguraldi txarra izatekotan, udal liburutegian egingo dute. Doan. Irailaren 16an, Txiki Festa egingo dute 17:30etik 19:00etara.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Gure esku

**ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA**
Legelaria

Adostea gure esku dago

Sentitzea gure esku da-goela esaten genuen aurrekoan. Sentitzeak eramatzen zaitu pentsatzera eta pentsatuz asma dezakegu zerk laguntzen digun zoriotsu izaten eta zerk ez.

Kataluniako herritarrak badira urte batzuk pentsatzen dabiltzala Espainian gaur bezala jarraitzeak ez diela mesederik egiten. Baina katalanek, pentsatzeaz gain, beste urrats bat ere egin dute: adostu egin dute herri bezala beren etorkizuna modu librean erabaki nahi dutela eta urratsak ematen ari dira.

Irailetik aurrera Katalunia eta Espainiaren arteko harremana ez da jada berdina izango. Urrats ausarta ematera doaz, baina sinetsita daude ez dutela ezer galtzeko. Irailean 27an Independentziak irabazi zein ez, Espainiak Kataluniarekin negoziatu behar du. Independentzia nagusitu zein ez, bietan aurrerapauso bat emango da oraingo menpeko egoeratik ateratzeko.

Herritarrek ondo ari direla sentitzen dute, haien determinazioari eta zentzu demokratikoari esker bide berriak zabaldu dituzte. Izugarria da ikustea zein konpromiso eta ardura maila erakusten ari diren Kataluniako herritar eta arduradun politikoak. Denak ados jarri dira bideari ekiteko oztopoei aurre egiteko. Denek elkarrekin zoriotsu izan nahi dute eta duintasunez jokatzeko jarrera argia erakusten ari dira.

Adibide eredu garri bat sortzen dabil Katalunia, euskal herritarrok ere, elkartasunez babesteaz gain, jarraitu beharko genukeena. Baina, horretarako gure arteko adostasuna dugu giltza.

Gauzak aldatzeko gaitasuna daukagu eta gauzak aldatzen hasiak gara, erabakiraino.

Bejondeizuela kataluniarroi, eta animo euskaldunoi!

Har dezagun bidea... ◀

«Euskara praktikoa» erakutsiko du AEK-k



Sara Cozar aktore ezagunak jarri dio aurpegia kanpaina berriari. © AEK

Ikasturte berrirako eskaintza aurkeztu du Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK). *Euskara praktikoa* goiburupean, «eguneroko premiei aurre egiteko» euskara irakatsi gura diete euskaltegira doazenei.

Ondokoek osatzen dute AEK-ren ikasturte berrirako eskaintza: «metodo eraginkorra»; euskaltegiak, Euskal Herri osoan; urte osoan zabaldua; barnetegia, Foruan; irakasle-talde prestu, prestatu eta eskarmentuduna; egunean bi orduko euskalduntze ikastaroak; ikastaro trinkoak; titulu homologatuak lortzeko maila guztiak (3. maila/EGA eta 4.a barne); auto-ikaskuntza; on-line ikastaroak; mintzamenaren lantzeko praktika-jarduerak; lan-

mundua euskalduntzeko egitasmoak; itzulpen-zerbitzua; irakurzaletasuna sustatzeko *Aizu!* aldizkaria... Gainera, diru-laguntzak ere badirela gogorazi dute.

Datorren ikasturterako matrikulazio-kanpaina aurkeztu zuen irailaren 2an Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK), *Euskara praktikoa* goiburupean. Azken urteotako ideietan sakonduta, eta, «egia esan, jaio ginenetik izan dugun izaerari eutsita», euskara egunerokoan edo lanean era-

Uribe Kostan

Lamia AEK (Leioa)Luis Bilbao Libano, 8
944 646 063 / lamia@aek.org**Lauaxeta AEK (Algorta)**Iparbide, 6-behea
944 304 734 / lauaxeta@aek.org**Jentilbaso AEK (Plentzia)**Kristo enparantza, 8
946 773 607 / jentilbaso@aek.org**Jentilbaso AEK (Gorliz)**Iberre plaza, 5
946 773 646 / jentilbaso@aek.org

bili gura dutenek euren euskaltegitan «metodo eraginkorra» aurkituko dutela azaldu zuten AEK-ko arduradunek. «Euskara praktikoa, eguneroko premiei aurre egiteko bideratuta. Ideia horixe da: AEKgaz lortuko duzue gura duzuen dena ulertzea, gura duzuen dena esatea», gaineratu zuten.

Plazaratutako spot labur batek ederto jasotzen du AEKren mezua. Segundo gutxiko istorioan protagonista Sara Cozar dugu, aktore ezaguna, eta AEKren ikasle izandakoa. Sarak azpimarratzen du oso gustura egon zela orain dela urte bi AEKren euskaltegi batean, eta, gainera, haren helburua oso azkar bete zuela: EGA agiria lortzea, hain zuzen ere. ◀

info+: www.aek.eus

Astialdiko begirale- ikastaro berria, Getxon

Begirale-lanak gustuko dituzten eta gehiago ikasi gura duten lagunei zuzendutako deialdia plazaratu du Getxoko Bizarra Lepoan Euskara Elkartek. Urtxintxa eskola-gaz batera, astialdiko begirale-ikastaroa antolatu du euskaltzale getxoartzarren taldeak. Urte eta erdiko iraupena edukiko du kurtsoak, eta 2015eko urritik 2016ko abendura arteko hainbat asteburu hartuko ditu; 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoko egingo dituzte parte-hartzaileak. Baldintza bi bete beharko dituzte ikastaroan izena eman gura dutenek: 18 urte izatea, edo 2015eko abendua baino lehen betetzea. Bestalde, eskolak amaitu eta

gero, Getxoko astialdi-talderen batean egin beharko dituzte praktikak.

Salneurriari dagokionez, 315 euro ordaindu beharko dituzte ikasleek; eta epeka egin dezakete. 225 euro irailan ordainduko dituzte, eta 90 euro, osterara, 2016ko irailaren 14tik 30era egongo da zabalik, goizeko 09:30etik 14:00etara. Interesatuak Bizarra Lepoan-eko bulegora jo beharko dute: Algortako Martikoena kalea, 16-2. so-lairua. ◀

info+: bizarralepoan.blogariak.net

Aurten ere, film labur eta argazki onenen egileak sarituko ditu Leioako Udalak

Daborduko, Leioako Udalak zabalik dauka Film Laburren XXII. Lehiaketara lanak aurkezteko epea; urriaren 23ra arte egongo da horretarako aukera. Euskaraz egindako lanik onenaren egileak mila euro jasoko ditu, eta beste mila euro, gaztelaniazko onenaren egileak. Sari-banaketa azaroaren 27an izango da, 18:30ean, Kultur Leioan. Argazki-lehiaketaren 29. edizioari dagokionez, azaroaren 2an amaituko da argazkiak aurkezteko epea. Zuri-beltzeko lanik onenaren egileari 400 euro emango dizkiote, eta beste 400, koloretako irudirik onena aurkezten duenari. ◀

info+: www.kulturleioa.com



Marina Alcalde, Diego Quispegaz, Buenos Aireseko Canning aretoan, aurten. © HERNAN BRUSA

«Tango-eskola muntatzeko ametsa bete gura dut»

Marina Alcalde Sainz tango-dantzari urduliztarra munduko onenetarikoa da.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Alcaldek 11 urte daroatza tangoa dantzaten. 33 urte gaz, Munduko Tango Txapelketaren finalean izan zen abuztuan. Urdulizko Tango Lastana aretoko irakasle da, eta domekan, jendaurreko erakustaldia egingo du jaietan, Iparralde kiroldegian, 18:00etan.

Buenos Airesen jokatu zen Munduko Pista Tangoko Txapelketan izan zinen abuztuan. Zelan ibili zinen?
Oso ondo. Mundial horretan 600 bat

,bikotek parte hartu genuen, pista-tangoko kategorian. Diego Quispek eta biok kanporaketak bata bestearen atzean gauditzen genituen, eta finalerdietara heldu ginen. Hortik, 40 bikotek egin zuten jauzia finalera, eta guk 11. postuan sailkatzea lortu genuen. Finala ere esperientzia izugarria izan zen, Luna Park estadioan: 9.000 pertsona sartu ziren txapelketa ikustera. Han 13. geratu ginen. Pozik gaude, hortaz.

Zuretzat data berezia izan zen, ezta? Urtebetetze ezberdin bat.

Bai, erabat. Abuztuaren 24 hori izan zen finalaurrekoaren eguna, eta esan behar ziguten ea finalera pasatuko ginen ala ez. Oso une berezia izan zen: azken txanda egokitu zitzaigun; dan-

tzatu ostean, epaimahaiaren erabakiaren zain geratu ginen, prentsagaz. Amaieratik lehenengorantz irakurritak, lehiakideak zelan sailkatzen ziren entzun genuen. Konturatu ginen gure izena ez zutela aipatzen, eta 11. postua heltzean, oholtzara bidali gintuzten. Oso une hunkigarria izan zen, ezin dut gehiago esan.

Profesionalki ere aitortpena da, ezta?

Bai, 22 urte gaz hasi nintzen dantzatzeko, orain dela 11, eta buelta asko eman behar izan nuen. Hastean, Bilbora joan beharra neukan. Ordurako banekien tango-dantzari izan gura nuela, eta horregatik neure buruari esan nion: «honetan lan egiteko modu denak bilatuko ditut». Horrek ekarri zidan bidaia pilo egitea, Buenos Aire-

sera joatea, eta abar. Gerora, ate asko zabaldu dit horrek Argentinan. Ez da erraza Buenos Airesen dantzatzeko lortzea, tangoaren haztegia baita. Baina aukera izan dut *milonga* (tango-dantzaldia) askotan dantzatzeko, eta, bereziki, Canning aretokoan. Oso fama-tua da, eta urte askoko historia dauka milonga horrek. Mundialaren aurretik, bertan dantzatzeko lortu genuen. Gerora, munduko txapelketak eman zion

“Gustatuko litzaidake hemen lan nahikoa sortzea, hemendik mugitu behar ez izateko”

amaiera bikaina birari, bertara heltzea ez baita erraza, baina han izan ginen. Gainera, abendutik gabiltza lanean Diego Quispe bikotekidea eta biok. Guretzat oso atsegina izan da mundialean lortutakoa, sei hilabete eskaseko lanagaz egin dugula jakinda.

Urdulizen, ez zaizu lanik falta, ezta?

Hemen hamar urte daroatza tangoagaz lanean, eta zorionez, ikasle maitagarriak ditut; beti lagundu eta jarraitu didate. Orain, eskola bat muntatzeko proiektua dugu, eta laster zabaltzeko lanean gabiltza. Bestalde, European lan eskerga ateratzen zaigu. Gustatuko litzaidake hemen lan nahikoa sortzea, hemendik mugitu behar ez izateko. Hori perfektua litzateke, baina beti irten behar izaten dut. Halere, hori ere polita da, hainbat leku ezagutzen nabilelako, eta nire tangoa leku batetik bestera daroadalako.

Kristoren esperientzia izan zen Buenos Airesekoa: euskal herritar bat han... Nik bertan ere lan egin izan dut, eta nire buruari esaten nion: «zelango historia, ni honaino heltzea, *porteñoi* (Buenos Aireseko biztanleak) tangoa dantzatzeko irakasteko! Ederra da hori». Espero dut eskola muntatzeko amets hori betetzea eta ondo joatea. Bitartean, jarraituko dut Urdulizko Tango Lastana aretoan irakasten eta kanpora ateratzen. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07
Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



eman izena euskaltegian
URIBE KOSTAKO AEK
ZATOZ GUREKIN!

Leioa: 944 646 063 lamia@aek.eus
Getxo: 944 304 734 lauxetia@aek.eus
Plentzia: 946 773 637 jentibasa@aek.eus
Gorliz: 946 773 646 jentibasa@aek.eus

www.aek.eus/blogak/unibekasta
www.facebook.com/unibekastako.aek

30 urtean, 50.000 lagunek ikasi dute euskara gure 100 euskaltegietan



Eman izena

673 200 100 - 946 464 000
www.aek.eus

«Emakumeek eragin txikiagoa daukate Interneten, gizonek baino»

Iker Merchan Mota algortarrak EHUko egindako tesiaren arabera, sarean handia da gizonen eta emakumeen arteko aldea. Zuloa gehiago nabaritzen da interes publikoko gaitan eragiteko gaitasunean. Nabigatzen duten gizon eta emakume kopuruen arteko aldea, oster, nabari ezina da. Merchanen arabera, «arazoa ez da Internet, gizartea baizik».



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

Ordenagailuak eta horiek komunikaziorako zabal-tzen dituzten aukerak beti interesatu zaizkit niri; batez ere uste dudalako, eta, horrela ikusi dudalako, teknologia berri horiek aukera ematen dutela talde gutxituetan baldintzak hobetzeko. Hasieratik, argi neukan tesia Interneten inguruan egingo nuela. Gainera, toki batean zein bestean, nire lana beti egon da Interneti lotuta. Gakoa zen zer talde gutxitu aukeratu. Ni mutila naiz, zuria, heterosexuala, egunean hiru aldiz jateko aukera daukat, etxerik ez zait falta... Hori guztia kontuan hartuta, ni ez naiz talde gutxitu baten kide. Besteren bat hautatu behar nuen.

Gure gizarte honetan zein uste duzu dela talde gutxiturik handiena? Nire ustez, zalantzarik ez dago: emakumeak dira. Hau da, gure gizartearen erdia izanik, hainbat gaitan arazoak eta oztopoak baino ez dituzte aurkitzen.

Gai horren gainean gutxi dakiten irakurleei zelan azalduko zenieke tesiaren edukia?

Aipatu behar da jarraian egindako hiru ikerketa direla. Lehenik eta behin, adituen iritziz, emakumeen egoera zein den aztertu nuen. Esan bezala, ez dira benetako datuak; iritziez ari gara. Horretarako, hainbat zerrenda ikertu nituen; *El Mundo* egunkariak urtero argitaratzen duen zerrenda, batez ere. Bertan, 800 adituri galdetu ohi diete nork duen eraginik handiena Interneten. Zerrenda horren arabera, %8 baino ez dira emakumezkoak.

Zein izan zen bigarren ikerketaren helburua?

Aipatu bezala, 800 aditu horien iritziz, emakumeek ez dute eragin handirik Interneten. Ikus dezagun hori egia ala gezurra den. Agian, gerta daiteke adituen iritzia hori izatea, baina emakumezkoen egoera sarean bestelakoa izatea. Horretarako modurik egokiena blogak aztertzea zela iruditu zitzaidan. Izan

“ Generoa da emakumeak nagusi diren interes publikoko gai gutxienetako bat. Arazoa da gizonek horretaz ez idaztea ”

ere, bitakorek hainbat elementu positibo dauzkate ikerketa aurrera eramateko. Azken finean, edozeinek sor dezake blog bat bere etxetik, ia inolako gasturik gabe. Enpresa batek egindakoa ere izan daiteke, esaterako, Berria.eus atariak sortzen dituenak; edo modu profesionalean eratutako bitakora, baina komunikabide tradizional batekin loturarik ez duena, Sustatu.eus bezala. Lagun batek baino gehiagok elkarlanean egindakoak daude, baita norberak sortutakoak ere... Horiek guztiak aintzat hartuta, ikerketarako oso gai polita iruditu zitzaidan. Hala, egon badago Espainiako blogak agertzen diren zerrendak,

eta horietatik interesik handiena eragiten duten 339 hartu nituen, eta banan-banan begiratu nuen zenbat gizon eta zenbat emakume dagoen bakoitzean.

Dagoeneko, ez gaude iritzi bati buruz hitz egiten, adituena baldin bada ere; benetako datuez ari gara. Hala ere, oso tristea da blog horien azterketak ematen duen irudia: Internetera gizonak adina sartzen badira ere, eragin handiko bitakoren %17 bakarrik dira emakumeenak. Gainera, jorratzen dituzten gaiak erreparatzen badiegu, ikus dezakegu ez direla interes publikoko gaiak; «femeninotzat» dauzkagun edo emakumezkoekin lotzen ditugun gaiez hitz egiten dute, esaterako, generoa, haurrak, edertasuna, moda...

Zeintzuk dira interes publikoko gaiak?

Lehenik eta behin, esan behar dut hori ez dela nire iritzia; oso erraz jakin daiteke, modu objektiboan gainera. Gai bat iritzi publikokoa da zuri eragiten dizunean, nahiz eta zuri ez interesatu. Demagun Athleticek Espainiako Superkopa irabazteak ez dizula inolako interesik pizten, zuri futbola ez zaizulako gustatzen. Gauza bera gertatzen da modarekin: zuk ez badiozu horri kasurik egiten, ez zaizu inporta al-kandora gorri edo urdin bat eramatea, hori modan egon ala ez. Beste kontu bat da, zerga berri bat ateratzen badute, Ingurumenaren gaineko legedi bat kendu edo berria sortzen badute, osasunari lotutako hainbat neurri aldatzen badituzte... Gustatu ala ez, eragin, eragingo dizu. Esan gabe doa, alde edo



kontra egon, zerga berria berdin-berdin ordainduko duzula. Ikerketara bueltatuz, zoritzarrez, interes publikoko gaietan okerrago daude emakumezkoak, gizonetzkoak baino. Ez dut esan gura edertasuna edo haurrak interes gehiago ala gutxiago daukaten gaiak direnik; kontua da ez direla interes publikoak.

Baina genero-gaietan, buruan agertzen dira emakumeak Interneten...

Generoari buruzkoak dira emakumeak gizonei nagusitzen zaien interes publikoko gai bakarrenetari-koak. Horrela da. Baina hori, azken finean, tautologia bat da; edo beste era batera esanda, ageriko edo bistako zeozer. Aldi berean, arazo bat ere bada, genero-kontuak emakume eskuetan bakarrik uzten ditugulako, eta gizonetzkoak normalean ez ditugulako gai horiek jorratzen.

Hiru ikerketez berba egin duzu hasieran.

Alde batetik, bagenekien adituek ez dutela uste emakumeek eragina daukatenik Interneten. Eta iritzi bat zena blogak ikertuz egiaztatu genuen. Bakarrik falta zitzaigun datu horiek guztiak interpretatzea. Hala ere, nik ez nuen horrelako lanaren ardura hartu nahi; argi neukan nire iritziak ez zuela inolako garrantzirik tesian. Gauzak horrela, 14 lagun elkarrizketatu nituen: horietatik lau, emakumezko zein gizonetzko, adituak ziren Interneten, komunikazioan, blogetan eta genero-kontuetan; eta gainontzeko beste hamar rak, Internet bidez eragin handia zeukaten andreak.

Ikerketa horien datuak eta emaitzak eskuetan hartuta, zelakoa da emakumeen eta gizonen arteko eten digitala?

Kuantitatiboa baino, kualitatiboa da emakumeen eta gizonen artean Interneten dagoen aldea. Demagun... 1997an gizonak ginen Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) zeuden Interneten erabiltzaileen %75, hau da,

“Tresnaren erabilpena ez da oztopoa, baizik eta hori erabilita zer ondorio dagoen, gizona ala emakumea izan”

lautik hiru. Internet gizonetzkoan kontu bat zen; gizonok erabiltzen genuen. Garai hartan, bazirudien arazoa erabilpenean zegoela. Emakumeek ere Internet erabiltzea lortzea zen irtenbidea. Gaur egun, desagertu egin da ia-ia garai hartako eten digitala; erabiltzaile-kopurua berdina da. Beraz, modu kuantitatiboan, emakumeek eta gizonetzkoek nabigatzeko aukera berdina dute.

Non dago arazoa?

Arazoa ez dago tresnaren erabilpenean, baizik eta tresna hori erabilita zer ondorio lortzen duzun gizo-

nezkoa ala emakumezkoa izanda. Hor dago benetako gakoa: nahiz eta Internet minutu-kopuru berbera erabili egunean, gauza da emakumeek ez dutela gauza berbererako erabiltzen, ezta emaitza berberak lortzen ere.

Garrantzitsuak dira norberak bere blogean jorratzen dituen gaiak?

Norbaitek irratia entzuten badu edo telebista ikusten badu, modu pasiboan egiten du; entzuleak gara edo ikusleak gara. Interneten ikusleak eta entzuleak izan gaitezke aldi berean, baita ekoizleak ere. Oinarrriak dira nork sortzen dituen edukiak sarean, nork lortzen duen eragin gehien sortzen dituen eduki horiekin, eta, azken finean, zer gai jorratzen ditugun eduki horietan. Gainera, lehen aipatu dudana bezala, «femeninotzat» dauzkagun edo beraien generoarekin lotzen ditugun gaiez hitz egiten dute emakumeek, esate baterako, generoa, haurrak, edertasuna, moda... nolabait, gure gizarteak horretara bultzatu dituelako.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko tresna izan daiteke Internet?

Adibidez, zuen aldizkarian erabaki dezakezue orrialdeen erdiak emakumeentzat izango direla; erabaki dezakezue edukien erdia emakumeek idatziko dutela; are gehiago, aldizkari osoa emakumezkoek bakarrik ekoiztutako produktu informatibo bat izango dela. Komunikabide klasikoetan (irratia, prentsa eta telebista), horrelako erabakiak har daitezke. Telebista batean, 24 orduz bakarrik ekoiz daitezke egunero. Ez dago gehiago ekoizterik telebista-kate batean. Gauza bera gertatzen da irratikate batean. Idatzizko komunikabideetan, berriz, orrialde-kopurua finkoa da. Beraz, horietan, noski, egin daitezke aldaketak eta saiakerak, gizartea alda dadin. Baina, Interneten ez dago hori egiterik.

Zergatik diozu ez duela horretarako aukera ematen Internetek?

Interneten blog-kopurua, printzipioz, infinitua izan daiteke; ez du neurrik. Nola bultza dezakegu interes publikoko gaiak jorratzen dituzten emakumeen bitakora-kopurua gizonetzkoen berbera izatea, blog-kantitatea infinitua izan daitekeen lekuan? Nik ikusten dudana modu bakarra gizartea aldatzea da. Arazoa ez da Internet, gizartea baizik.

Zelan eman dakioke buelta egoerari?

Elkarrizketatutako emakumeek zenbait neurri plaza-ratu zituzten. Batetik, etxeko lanen eta etxetik kanpoko lanpostuaren arteko kontziliazioa aipatzen zuten. Argi dago, gizonetzkoekin alderatuz, Interneten ibiltzeko denbora gutxiago daukatela etxetik kanpo lan egiteaz gain, etxe barruko kontuez arduratu behar duten emakumezkoek. Horretaz gain, hainbat zerrenda eta ranking sortzea proposatzen zuten elkarrizketatuek, sarean dauden emakumeak ezagutarazteko. Egon badaude lan itzela egiten duten emakumeak. Eman diezaiegun espazio publiko bat gainontzeko andreak ikus dezaten horretarako aukera ere badaukatela eta eurak ere bertan egon daitezkeela. Azkenik, gertatu ohi da gizonetzko bati kritika egiten zaionean, esan duenaren gainekoa izaten dela. Emakumezkoak, ordea, euren gaineko kritikak jasotzen dituzte, esan dutenaren aitzakia pean. Guztion ardura da hori aldatzea. ◀



Goiherriko sokatiralariak Loiura heltzean egindako familia argazkian.

Goiherri sokatira-taldeak balentria egin zuen, pasa den irailaren 3an. Europako Lur Gaineko Txapelketa irabazi zuen Belfasten, 560 kilokoan, gizonezkoen modalitatean.

Erandioztarrek harrera beroa eskaini zieten pasa den astelehenean Europako txapeldunei, Goiherriko sokatira taldeari, alegia. Arrastian heldu ziren Belfastetik kirolariak Loiura aireportura, zain zituztela dozenaka auzokide eta zale. Goi-Alde dantza taldeko kideek aurreskua dantzatu zieten terminalean, eta ondoren, ohi legez, bertoko «gaba-

rran» bidaiatu zuten. Hortaz, kamioi gainean egin zuten baserriz baserriko ibilbidea, Goiherri auzoraino. Bertan, parrilladaren inguruan garaipena ospatu, eta ehunka lagun zoriontzak jaso zituzten Goiherrikoek. Litekeena da Erandioko Udalak ere klubari harrera ofizialen bat egitea, baina oraingoz ez dago ezer baieztatuta. Goiherri sokatira-taldeak Europako Lur Gai-

neko txapeldun titulua irabazi zuen aurreko asteko egunean, hilak 3, Belfasten (Ipar Irlanda) jokatu zen txapelketan. Erandioztarrek gizonezkoen 560 kilokoan jantzi zituzten urrezko dominak. Finalean, Stans Oberdorf talde suitzarrari nagusitu zitzairen. Podiuma beste talde suitzar batek osatu zuen: Sinsek, Bancran talde irlandarra mendean hartu ostean.

Selekzioagaz ere, ederto

Handik bi egunera, zapatuan, *Basque Country* izeneko euskal selekzioak beste domina pare bat lortu zituen Eu-

ropako Lur Gaineko Sokatira Txapelketan. Goiherri sokatira-talde erandioztarrak Gaztedigaz eta Mutrikugaz osatutako taldeak zilarrezko domina lortu zuen 600 kiloko lehia mistoan, eta brontzezkoa, gizonezkoen 560 kiloko tiraldietan.

Euskal Herriko sokatira-taldeak aurtan *Basque Country* ordezkatzuz lehiatu dira lehenengo aldiz Europako txapelketa batean.

Bestalde, Laukizko Gaztedi taldeak laugarren domina ekarri du Euskal Herriara, Europako txapelketako 560 kiloko, emakumezkoen taldeak lortua. ◀

Izena eman daiteke, daborduko, Gorlizko Mendibike Martxan

Mendibike elkarteak antolatuta, hilaren 27an, Gorlizko 24. Mendibike Martxa egingo dute. Goizeko 09:00etatik aurrera, parte-hartzaileek ibilbide bi izango dituzte aukeran: 24 eta 42 kilometrokoak. Proba luzean, Andrakamendi, Jata, Urizarmendi eta Ermua mendiak zeharkatuko dituzte. Antolatzaileek 500 txirrindulari hartuko dituzte gehienegaz, 16 eta 95 urte bitartekoak. Horregatik, garrantzitsua izango da izen-ematea ahalik eta lasterren egitea; irailaren 24ra arte izango da aukera. Egun berean, haur eta gazte martxak ere izango dira. ◀

info+: Kirolprobak.com

Elkartasuneko herri-krosa jokatu da domekan, Gorlizen

Domekan irtengo da Gorlizko III. Herri Krosa Eliz plazatik, 11:00etan. Lasterkariak aukeran izango dute bost kilometroko zirkuituari buelta bakarra ala buelta bi ematea. Oraindino izena eman ez duenak barikura arte izango du aukera Interneten. Horrela egin ezean, domekan ere inskribatzetik izango da, 10:30ak arte, garestiago. Interesatuak 10 edo 15 euro emango dizkiote WOP Fundazioari. Dirua irabazteko asmo bako erakunde horrek gaixotasun neurodegeneratiboen aurkako terapien ikerketa-proiektuetara bideratuko du laguntza hori. ◀

izen-ematea: kirolprobak.com

Alain Santamariak irabazi du Urdulizko sari nagusia

Alain Santamaria txirrindulari errioxarra nagusitu zen martitzenean Urdulizko 23 urte azpikoentzako Andra Mari txirrindularitza-sari nagusian. Santamaria Telcom-Gimex talde nafarraren partaideak esprintean irabazi zien Xabier San Sebastiani eta Jose Maria Rodriguez; hurrenez hurren Euskadi Fundazioaren eta Caja Ruraleko txirrindulariak dira. 114 kilometroko zirkuituan, Unbeko gainak eta Euskadiren eta Caja Ruralen arteko demak eragin handia izan zuten etapa mugituan. Urdulizko proba puntuagarria da Lehendakari Txapelketarako, Jonathan Lastra buru da. ◀

Canales bigarren, Munduko Surf Ligako proba batean

Leticia Canales surflari sopoloztarra bigarren geratu zen pasa den zapatuan, Coruñaiko Pantin Classic Galicia Pro proban. Munduko Surf Ligarako txapelketa puntuagarri horretan, Barbadosko Chelsea Tuach surflaria nagusitu zen, gutxigatik baina merezita. Canalesek publikoaren animoak eta senideen eta entrenatzailearen babesa eskertu zituen. Era berean, ederto baloratu zuen Pantingo antolakuntza: «proba honegaz, munduko zirkuitua egin ezin dugun europarroi maila goreneko proba batean lehiatzen uzten digulako». Gizonezkoetan, Brasilgo Thiago Camaraok irabazi zuen. ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan
GLOBAL SERVICE

Emakumezkoak ere, uretara



Klubak espero du emakume gehiagok baloi horiagatik grina sentitzea. © GETXO I. W. K.

Getxo Igeriketa Waterpolo Klubak erronka berezia ipini dio bere buruari: aurtengo 2015-2016 denboraldian waterpolo-atalean emakumeen talde bi ateratzea; gazte eta senior kategoriatan talde bana, alegia.

Izan ere, gaur egun, klubean waterpolo egiten diharduten emakumezkoak izan badira, baina kategoria txikitian dabilta: benjaminak, kimuak, eta haurrak. Horiek mutilakaz batera lehiatzen dira, talde mistoak osatzen dituzte-eta. Kadeteak dira gaur egun neskek propio duten talde bakarra.

Horregatik, deialdia egin diete neskatok eta emakumei hurbil daitezen, Fadura eta Gobela ezagutzera. Klu-

betik azaldu dutenez «daukazun adina daukazula, eskarmentua izan ala ez, gu ezagutzera etortzea gura dugu. Konpromiso barik, ipini harremanetan gugaz». Beharrezkoak diren gauza bakarrak honakoak dira: bainu-jantzi bat, eta talde-kirol interesgarria probatzeko gogoia.

Parte-hartze hori beharrezkoa du klubak, gaur egun dabilzan nesken harrobia indartzeko. Aipatutako emakumezkoen talde biak sortzeaz gainera, klubak beheko kimuak eta haur kategoriak sendotu gura ditu ikasturte hasiera honetan. Hori dela eta, 2002tik 2006ra bitartean jaiotako neska-mutilak ere erakarri gura dituzte. ◀

info: waterpologetxo@yahoo.es / 606 996 723

Leioako Waterpolo, txapeldunorde Gironan

Leioako Waterpolo Taldeko neska kadeteek bigarren postua lortu zuten, pasa den aste akabuan BWMF Kopan. Gironako Lloret de Mar herriko igeritoki olinpikoan jokatu zen partida, Be Water My Friend (Izan ura, nire lagun hori) gazte-dinamizazioarako elkarteak antolatuta. Taldeka txapeldunorde izateaz gainera, Uxue Hernandez leioaztarra izendatu zuten zazpiko perfektuko jokalaria. Era berean, Jon Lopezek entrenatzaile onenaren saria lortu zuen.

Hirugarren edizioan, BWMF Kopak Europa osoko 53 waterpolo-talde

batu zituen, haietako 12 emakumezko kadeteenak. Leioaztarrek maila handiko taldeei egin behar izan zieten aurre, esaterako: Kataluniako Mediterrani, Sant Feliu, Rubi, Terrassa, Mataro eta Sant Andreu; Italiako Rari Nantes Bologna; Eskoziako Scottish WP; Ingalaterrako Sheffield; Kroaziako Mladost Zagreb; eta Hungariako Eger.

Leioako emakumezkoen taldeek pasa den abuztuaren 31n hasi zuten prestaketa fisikoa, Espainiako Lehenengo maila helburu. Gizonezkoak, ordea, aste bat lehenago hasi ziren entrenatzen, Euskal Herriko Ligarako. ◀

Gijongo estropadan Abrako kluba, nagusi

Abrako Itsas Errege Kluba Gijonen nagusitu zen irailaren hasieran, bela arineko Kluben Artek Sariaren 4. edizioan izan zen hori. Santander, Asturias eta Donostiako klubetatik geratu ziren Areetakoak. Abrako klubeko hainbat bazkide izan ziren protagonista, besteak beste: Nicolas Viar nagusitu zen Laser Radial modalitatean, Nicola Jobbe-Duval klubeko kidearen aurretik. Iñigo Fuertes laugarren sailkatu zen, eta Perico Basterra, ordea, seigarren. Laser 4.7 kategorian, Abrako Manolo Rey Baltar izan zen



Abrakoen espedizioa. © ABRACO I. E. K.

txapelduna, eta Toms Trueba, hirugarrena. Abrak lortutako emaitza onak biribildu zituen Juan Olabarrik, Optimist mailan hirugarren geratuta. ◀

Bila zenbiltzan marka guztietako tailerra



10W40 olio + filtroa aldatzea

39'99

€* BEZa eta eskulana barne.



motrio pneumatikoa

175/65 R14 82T

49€* -an

*Prezio horiek karterrean 5 litroa arteko edukiera duten ibilgailuentzat dira. Ez dago sartuta filtroaren prezioa. Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du eta/edo izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.

*Pneumatiko 1 aldatzearen azken prezioa. Muntaketa, orekatzeta eta hondakinaren kudeaketa-kostua (EO 1619/2005) ez daude sartuta (EO 1619/2005). Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du, eta/edo izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.



Tutallermotrio
Garantía y Compromiso

Patrocinador oficial de la Liga Nacional de Fútbol Sala LNFs

motrio Algorta – Arriluce tailerrak

Errotatxu industrialdea, 4. pabilioia. 48993 ALGORTA - BIZKAIA

Tel.: 94 431 91 05 / 669 37 99 31

E-maila: algorta@talleres.motrio.es

www.motrioalgorta.es

Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00



Getxo Rugby, taldea indartzen



Nicolas Costa ohituta dago 15 zein 7 jokalarigaz jokatzera. © GETXO RUGBY TALDEA

railaren 19an ekingo dio Getxo Rugbyko gizonezkoen taldeak Ohorezko Mailako lehenengo partidari. Euskal derbia izango da, Ampo Ordiziaren kontra, eta hori-beltez etxean jokatu dute, 17:00etan.

Daborduko lehia ate joka dagoela ikusita, azken egunotan Fadurako aldagelak hainbat mugimendu izan du. Klubak iragarri duenez, Brent Semmons Zeelanda Berriko entrenatzailerak gidatuko du taldea denboraldi berrian. Bere herrialdeko hainbat talde entrenatzeaz gainera, North Harbour eskualdeko 20, 18 eta 16 urte azpikoen selekzioak prestatu ditu.

Jokalariei dagokionez, Getxok bi kontratatatu ditu azken egunotan. Alde

batetik, Nicolas Costa argentinarra dago, uztartze erdian zein jokoa zabalitzen moldatzen dena. Zeelanda Berriko pasaportea dauka, eta 20 urte baino ez, baina eskarmentu handikoa da. Zeelanda Berriko 20 urte azpiko selekzioan jardun du, Semmons en agindutara. Beste aldetik, Patricio Todeschini «Pato» argentinarra heldu da Getxora. Todeschinik bigarren zein hirugarren lerroan jokatu du. Tamaina handikoa da (1,91 metro), eta Rosarioko selekzioan ibili da.

Bestalde, jokalaria garrantzitsu batzuek kontratua berritu dute; horiek dira Brad Linklater edo Tongako Anthony Matotoren kasuak. Azkenik, Leandro Wozniak guztiz osatuta dago. ◀

Uruguai-Euskarians: zale andana, Faduran

Giro handiko errugbi-partida bizi izan zen, pasa den domekan, Fadurako *bonboi-kutxa*-n. Euskal zaleek aukera izan zuten Euskarians euskal selekzioa ikusteko, eta Bizkaiko komunitate uruguaiarrak *Los Teros* selekzioa eduki zuten aurrez aurre, telebista barik. Biek ala biek, Fadu-

rako harmaila bete zuten. Kirol arloan, Euskariansek joko ona erakutsi zuen, baloia izan zuenean. Aurrean sendo jokatu zuen hasieran, eta defentsa ona egin zuen partidako azken minutuak heldu arte. Baina ezin izan zion urdin argien indarrari eutsi. Uruguaitarrak 19-41 nagusitu ziren lagunartekoan. ◀



Uruguaioko jokalariek irailaren 13ra arte izango dira Getxon. © SUDAMERICA RUGBY

Kirolelan izen-ematea, hilaren 14ra arte

Getxo Kirolak erakundeko ikastaroetan izena eman gura duenak datorren astelehena, hilak 14, izango du epemuga. Bitartean, eskariak Fadura eta Gobela kiroldegietako bulegoetan eta Getxo Kirolak webgunean egin daitezke. Interneten, nortasun-agiri elektronikoa edo pasahitza erabili beharko da; pasahitza ez daukatenean bulegoan eskatu beharko dute.

Irailaren 15ean, goizeko 10:00etan, zozketa publikoa egingo da Faduran, eta lekuak modu automatikoan esleituko dira; kontuan hartu beharra

dago eskariak amaitu artean, pertsona bakoitzak ikastaro bakar batean izena eman dezakeela. Behin betiko izen-ematean berri Getxo Kirolak-en iragarri-oholetan, webgunean eta posta elektronikoz emango da. Guztira 5.580 leku daude; horietatik, 2.450 izango dira aurreko denboraldian ikaskuntza-zikloko ikastaroetan parte hartu dutenentzat, eta gainerakoak, berrientzat. Jarduera-programari dagokionez, 25 modalitate eta ia 360 ikastaro eskainiko dira. Nobedadetzat, denboraldi berrian zumba-eskolak emango dira. Denboraldia urrian hasiko da. ◀

Athleticek Oihane Hernandez fitxatu du B talderako

Athleticek Oihane Hernandez Zurbano aurrelaria sartu du azken unean bigarren taldean. Hernandez Erandioko Betiko Neskak taldetik dator, eta 15 urte besterik ez ditu. Txus Gojenuri entrenatzaileak 21 jokalaria ditu Athletic Bn. Haien artean, ez dira falta Uribe Kostan ibilitakoak: Amaia Peña atezain getxoztarra; Naira Solis (Leioa), Andrea Sierra (Bizkerre) eta Naroa de la Fuente (Betiko) atzelariak; Damaris Egurrola Wienke erdilaria estatubatuarra (Betiko); Eider Murgia erdilaria (Betiko); eta June Mendizabal aurrelaria (Bizkerre). ◀

Arenas eta Leioa, hurrengo partiden zain

Uribe Kostako 2. B Mailako derbia gol zaparradaz amaitu zen, zapatuan, Gobelako zelaian: Arenasek Leioari sartutako 5-0. Arenasek kategori horretan lehiazteko hiru urtean gordetako gosea erakutsi zuen, une onak izan zituen Leioaren aurrean. Garaipenari esker, areetarrak sailkapenaren bigarren postuan daude, 7 puntuz, Castillaren azpian. Leioa, oster, jaitsiera postuetatik oso hurbil paratu da, hiru partidatan 3 puntu bakarrik batuta. Datorren jardunaldian, Leioak Toledo hartuko du Sarrienen, eta Arenasek Talaverari egingo dio bisita. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus
◀

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37



TXEMI
ERANDIO
Berbotsen partez

Zorionak Txemi!!!! Egun zoragarria pasa, gure lehendakari maitia!! Berbots!



JANIRE
SOPELA
Kuadriren partez

Zorionak trebolazabala anderea!!!! Egun ederra igaro eta asteburuan primeran ospatuko dugu elkarrekin! Jarraitu izaten zaren moduko!!



AINARA
ALGORTA
Gehien maite zaituztenen partez

Urteak dira egunero barrea eragiten diguzula, horregatik gaur eta beti zoriontsu egin nahi zaitugu. Zorionak potxola! Maite zaitugu!!!



IÑIGO
BERANGO
25 metro kuadrilaren partez

Berangoko kukurutxoa esperientzia barrien bila joango zaigu! Gozatu bidaiaz, ikusi, ikasi... eta bueltatu! Laster arte!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Inoiz ez dakizu zer ekar dezakeen zorteak. Hortaz, telefonoa hartu, eta galdetu nor den. Beti ez da eta izango saltzaileren bat.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Berandu baino lehen etorkin edo errefuxiatu berriren bat helduko da zure ingurura, antzinako *Gerra-ko umeak* legez.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Ikasturte berria hemen dago, eta martxan ipintzeko nagikeria denak uxatu beharko dituzu. Baina zein gogorra den!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Kataluniaren gaineko artikulatuak, elkarrizketak eta inkestak irensteak ez du oso osasungarria izan behar. Nolabaiteko konplexua ekar diezazuke eta.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Egin beharrekoa egiten baduzu, dena ondo joango da, zuri dagokizunez. Ez ahaztu besteek duten abilitadea egoera onenak hon datzeko.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zurea dena kendera dizute laster batean. Orduan erakutsi beharko duzu ea benetan gogokoa duzun, eta berreskuratzeko borrokatuko zaren.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Orain arte ezagutu ez duzun pertsona arrotz bat sartuko da zure bizitzan. Ez jokatu mesfidati, eta izan justua: dagokion tratua eman egiozu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Behin eta berriro ukatu ostean, daborduko eskatutakoa ez egiteko aitzakiak akabatu zaizkizu. Beharreen hasi, edo aitzakia hobeak bilatu!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Pasta eta patatak, patatak eta pasta. Originaltasuna ez da bakarrik misteriozko eleberriak idazteko behar. Ahalegindu zaitetz sortzaileagoa izaten.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Lantzean behin legez, berriro nabaritutako duzu dauden falta. Gogoan izan eta aurrera segi, horrelakoa baita bizitza.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Zertarako geratu telebista ikusten goizaldera arte? Errepikapen horiek daborduko ikusi dituzu; ez bada telebistan bertan, ordenagailuan.





Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Udan irakurritako liburu hori ez da zertan azkena izan. Udagoienean, neguan eta udaberrian ere jarrai dezakezu istorioei begiratzen!

Soluzioa



Zazpi ezberdintasunak



Olatuak

Energia sortzeko etorkizuneko bidea?



Aldizkakotasuna da energia berriztagarrien arazorik handienetako bat, baita itsas energian ere. Hori dela eta, EHuko EOLO taldeko ikertzaileek olatuek zenbateko energia izango duten aurreikusteko teknika garatu dute.

IKER RINCON MORENO

Itsasoak sor dezakeen energiaren ahalmena handia dela uste dute adituek, baina oraindino ere bide luzea egin behar da masiboki ekoizteko. Izan ere, energia berriztagarri batzuen arazo bera du itsasokoak ere: aldizkakotasuna; hau da, batzuetan, ugaria, eta beste batzuetan, urria izaten dela. Hala ere, haize-energiagaz alderatuta, olatuek badute abantaila bat: errazago iragar daitezke olatu egokiak, haize-boladak baino. Horixe izan da EHU Euskal Herriko Unibertsitateko EOLO taldeko ikertzaileen erronka: olatuek zenbateko energia ekarriko duten aurreikusteko teknika bat garatzea. Izan ere, itsas energia modu eraginkorrean ekoizteko, komeni da jakitea noiz ekarriko duten olatuek indar handia.

Bizkaiko golkoan dauden bost buien bitartez jasotako erregistro historikoak baliatu dituzte EOLO taldeko ikertzaileek, olatuen indarra zenbatekoa izango den aurreikusteko. Interneten pilatzen den informazioa ikertzeko erabili ohi den algoritmoa erabili dute, datu horiek guztiak aztertu eta ondorioak ateratu ahal izateko. Proiektuaren gaineko xehetasun denak *Ocean engineering* aldizkarian aurkeztu di-

tuzte, *Short-term forecasting of the wave energy flux Analogues, random forests, and physics-based models* artikuluan. Hainbat ordu aldez aurretik olatuek

Itsas energiagaz elektrizitatea sortzeko prototipo ugari dago, baina, urte batzuk barru, gutxi batzuk nagusituko dira

zenbateko energia ekarriko duten aurreikustea bezain garrantzitsua da prototipo eraginkorrak izatea. Izan ere, datu horiek jakinda, olatuek sortutako energia hobeto txertatu ahal izango da elektrizitate-sarean, eta kontsumitzen den energia berriztagarrien portzentajea handitu, bide batez.

Gaur egun, itsas energia baliatuta elektrizitatea sortzeko prototipo ugari dago mundu osoan. EOLO ikerkuntza taldeko koordinatzaile Gabriel Ibarrek azaltzen duenez, une honetan «itzelezko mugimendua dago» horren inguruan; hala ere, gaur egun, aha-

legin asko dauden arren, urte batzuk barru, gutxi batzuk nagusituko direla aurreikusten du, «ekonomikoki eta teknikoki fidagarrienak direnak, hain zuzen ere».


Olatuen energia aurreikusteko teknika

Prototipo horiez gainera, itsasoko olatuak baliatuz energia modu eraginkorrean ekoitzi ahal izateko, olatuen aldizkakotasuna aurreikustea ere beharrezkoa litzateke. Eta horretan murgildu dira EHuko ikertzaileak. «Makina horiek egunen batean martxan jartzen badira, jakina da eguzki- eta haize-energia ekoizteko makinen arazo bera izango dela. Energia berriztagarrien arazorik handienetako bat aldizkakotasuna da; esate baterako, haize-energiaren kasuan, halako batean haize-bolada on bat izan dezakegu, baina, agian, handik 10 minutura ez dugu ezer izango. Eguzki-energiaren kasuan ere gauza bera gertatzen da», argitu du Ibarrek. Hori horrela, orokorrean, energia berriztagarrietan gertatzen den arazoa da aldizkakotasuna, eta horri aurrea hartzea, erronka. Izan ere, aldizkakotasun horrek arazoak sortzen ditu sare elektrikoa kudeatzeko orduan, besteak beste. Arazo horri soluzioa aurkitzea da ikerlarien helburuetako bat, «sare elektrikoa modu hobea-go batean gestionatu ahal izateko behintzat».

Itsas energia iragartzeko eredu horietako batzuk garatu ditu EHuko EOLO taldeak, *random forests* (ausazko basoak) deritzon teknikaz baliatuta. *Machine learning* izeneko eremuan azken urteotan garatu



Mutrikuko zentrala. GABRIEL IBARRA (EHU)

BIMEP proiektuaren eskema.
ITURRIA: ZIENTZIA.EUS
IRUDIA: © IRAIDE LOPEZ

© BIMEP/EEE

den algoritmoetako bat da *random forests* (RF); erregresio-zuhaitzak deritzenak ditu oinarri: sarrerako aldagaiak sustrai gisara tratatzen dira, eta irteerakoak, berriz, hosto modura. Horregatik deitzen zaio 'zuhaitza' teknika horri. Bada, erregresio-zuhaitzen garapen bat da *random forest*-a, zuhaitz bakar baten orde, asko erabiltzen baititu (normalean, milatik gora), 'baso' bat osatuz», azaldu du Ibarak.

EOLO taldeko koordinatzaileak dioenez, beste modelo batzuek alderatuta, fidagarritasun handia-

Muturreko egoerak zeintzuk diren jakin beharrezkoa da balizko estazioak eraikitze, mekanikoki ondo eusteko

goa dute bere taldeak garatutakoek, «hiru eta hama sei ordu bitarteko iragarpenetarako». Neurketa-sail historiko bat dute oinarri EOLO taldearen modeloek; hala, elkarregaz alderatzen dituzte olatuen unean uneko energia-mailak eta handik ordu batzuetara izango direnak. Horretarako, Bizkaiko golkoan dauden bost buia erabiltzen dituzte: hiru, Galiziako kostatik gertu, eta bi, itsaso zabalean. Espainiako portuen erakundea arduratzen da Galiziako buien mantentze-lanaz, eta britainiar meteorologia-zerbitzua (MetOffice), itsaso zabalekoenaz.

Energia ekoizteko leku egokienaren bila

Itsasoan sortzen den energia baliatzea da etorkizuneko helburua. Horretarako, energia mota hori ekoizteko leku egokiak bilatzea da erronketako bat. Oraindino ere kokapen horiek non izan daitezkeen iragartzea zaila dela aitortzen du Ibarak. Kokapen hori aukeratzeko hainbat kontu aztertu behar dira, esate baterako, ikustea toki bakoitzean zeintzuk diren muturreko egoerak. Izan ere, behar besteko argindarra ekoizteko leku egokia izateaz gainera, bertan eraikiko den balizko estazioak eutsi behar izango dio itsasoak dakarren indarrari, «hori ere ingeniari-erantzako beste erronka bat da, sistema ondo ainguratzeko».

Horretarako, olatuen segida luzeak aztertu behar direla azaltzen du EHuko ikerlariak, «ikusi behar dugu toki bakoitzean zeintzuk diren muturreko egoera horiek, mekanikoki ondo eusteko, eta ez bakarrik argindarra ateratzeko». EOLO taldea horretan murgilduta dago une honetan, horixe izango baita euren hurrengo lana. Bizkaiko golkoaren 110 urteko mugimendua aztertzen dabilta; oraindik ez dituzte azterketa horren lehenengo emaitzak atera, baina orokorrean itsas energiaren gorakada bat egon dela ikusi dute. Hala, azkenengo urteetan zeintzuk izan diren olaturik handienak eta zeintzuk izan diren muturreko egoera horiek jakin behar da kokapena aukeratzeko, «aingurak ondo eusteko, eta dena ondo diseinatze».

Portugalen eraiki zuten itsas energia ekoizteko mundu osoko lehendabiziko instalazio operatiboa. 2008an izan zen hori, eta handik 3 urtera, 2011n, Euskal Herrian mota horretako instalazio txiki bat egin zuten, Mutrikun (Gipuzkoa). Zentral horrek OWC teknologiaz funtzionatzen du, eta ekoizten duen energia elektrizitate-sarera bidaltzen du. Horrez gainera, laster entsegu-plataforma bat eratuko du EEE Euskal Energiaren Erakundearen BIMEP proiektuak (Biscay Marine Energy Platform): olatuen jardun errealean probatzeko prototipoak.

Klima-aldaketa eta olatuak

Gerora begira, bide bi jorratzeko asmoa du EOLOk: batetik, denbora errealean bereganatu gura ditu WRF (Weather Research and Forecasting) meteorologia-modeloaren datuak, gaur egun emaitzak hobetzeko lagungarri izango zaizkiola baiteritzo; bestetik, etorkizunean sor daitezkeen klima-egoera hipotetikoak aztertzen jarraitu nahi du. Izan ere, klima-aldaketak olatuei ere eragiten die, eta hainbatean behin euskal kostaldea astintzen duten denboraleak ere badu loturarik. EOLOko kideen iritziz, komeni da jakitea zer bilakaera izango duen itsas energiak datozen hamarkadetan, eta horretan dabilta lanean. Edozelan ere, hasi besterik ez dira egin itsas energia iragartzeko ikerketa-lanak, eta fase operatibora ez dira heldu; hau da, oraindino ez dira zuzenean aplikatzen. ◀



Flashback

Juanan Aranburu *Boti* (1946-2005)

© GABI DE LA MAZA

Lehenengo Antolintxu, Juanan Aranburu *Boti*

Flashback berezia honako hau, irudian lagun bakarra... baina Plentziako jaiak pasa berri izateagatik, eta irudiak gordetzen duen historiagatik, ezin kaxan gordeta utzi. Oraintsu heldu da gure eskuetara argazkia, Antolintxu lehenengoa: Juanan Aranburu *Boti* zena, 1987ko udan. Jakin dugunez, jai haietan irakurri zuen pregoia bideoz jasota dago, eta hala amaitu ei zuen: «Gora Plentzia! Gora San Antolin! Eta gora Euskadi askatuta!». Urteak joan-etorri, azken aldian, Antolintxuren parean, Madalentuku ere badabil jaietan...

Aranburutarren familia ezaguna da Plentzian, besteak besteak, herriko botika gobernatzen dutelako orain dela urte asko. Bertako seme Juanan Plentzia Telebistako (PTB) sortzaileetako bat izan zen; izan ere, alboko argazkiaren urte berean abiatu zuten tokiko telebista. Telebistakoek akorduan dutenez, «berak zituen baliabide xumeetatik osatu zen PTBko lehenengo grabazio-ekipoa». Juanan Aranburu Euzkadiko Ezkerrako zinegotzi ere izan zen. ◀



TESTUA

Nahikari Ayo Acebo

DOINUA

Norteko ferrokarrila

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia, eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Uribitakora

Kaleko koloreak


Erandio ezagutzen duenak ez du izango a(ha)ntzia, fabrikak bertan ziren nagusi ez zen diru gabezia. Orain dena aldatu egin da ez da bukatu krisia, etorkizuna ateen bezala gazteen dute itxia.

Hori koloreak ematen du bizia, gaztetasuna. Berdeak eman diezazuke esperantza oi laguna! Urdinak iradokitzen digu buruan ziurtasuna, Koloreek transmititzen dute zuk uste dezakezuna.

Koloreek gure etorkizuna dute esperantzaz betea, antzina fabrika hutsa zena orain dute gaztetxea. «Kalezulo» bihurtu egin da gune sortzaile, askea. Iraultza eta gure herria izan behar da gaztea.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua